

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Ikasgaiz beterik datorren
hamargarren urteurrena IÑAKI ALTUNA > 11

KUKULAISI: Euskarazko
aisialdia antolatu eta garatzeko
topagune bat sortu da > 12

2021eko urriaren 16a | XV. urtea • 744. zenbakia
0,50 euro


GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



«HERRITARREN ZERBITZURA DAGOEN DIGITALIZAZIOA, GUK ERABAKIA»

HORRETARAKO, HAUSNARKETA KOLEKTIBOA PROPOSATU DU MANU ROBLES-ARANGIZ FUNDAZIOKO
ZUZENDARI UNAI OÑEDERRAK EUSKAL HERRIA DIGITALA PLATAFORMAREN IZENEAN. > 22 Jon URBE | FOKU



8



12



Gallipoliko gudan hondoratu ziren dozenaka gerraontzi itsaspeko parkean 04

Libano itzaltzen ari da, zentzu guztietan 07

Nicoya penintsula, denbora pasatzen ez den munduko eremuetako bat 08

Kukulaisi, euskarazko aisialdia antolatu eta garatzeko topagunea 12

Beldurraren beldur? 17

Elkarrizketa: Unai Oñederra 22

Sarean 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



17



26

SINADURAK:

- 03 **Isidro Esnaola:** Europar Batasunean ere garraiolariak falta dira
- 10 **Saioa Aginako Lamarain:** Mugak ez dira oztopo
- 11 **Iñaki Altuna:** Ikasgaiz beterik datorren hamargarren urteurrena
- 16 **Unai Gaztelumendi**
- 20 **Itziar Elizondo:** Zahartzaroa zaharberritu
- 21 **Iker Barandiaran:** Sinismenaren industria
- 25 **Antton Izagirre:** Bidegabea izan zen
- 25 **Miren Azkarate Badiola:** Literaturarekin jolasean
- 30 **Edurne Larrazza Mendiluze:** Europako Kode Astea (European Code Week)



{ datorrena } **Isidro Esnaola**

Europar Batasunean ere garraiolariak falta dira

Azken boladan denok ikusi ditugu Britainia Handiko irudi kezagarriak: ikaragarritzko ilarak gasolina hartzeko, apalak hutsik supermerkatuetan eta abar. Ez dakit irudi denak oraingoak diren edo beste garai batekoak tartekatuta dituzten eman nahi duten mezua sendotzeko. Tarterik eman gabe, Brexitarekin lotuta zegoela azpimarratu zuten komunikabide ia denek. Eta Boris Johnsonek onartu zuenean Brexitak zerikusia zuela, poza ezin zuten ezkutatu hedabide horiek guztiek. Brexitaren ideia txarra zela eta Europar Batasuna paradisa dela azpimarratzeko ez dute aukerarik galtzen. Bide batez, gogoratzen digute ze ondo gauden Europar Batasunaren barruan. Baina gauzak ez dira marrazten duten bezain politak, ezta hain itsusiak ere.

Harrigarria bada ere, ilarrak ez dira produktuen urritasunaren ondorio, garraiolarien eskasiarena baizik. Neurri batean, horrek Brexitarekin lotura badu, baina garraiolarien faltak pandemiarekin zerikusia ere badu. Itxialdi garaian garraiolari kanpotar asko etxera bueltatu ziren, lanik gabe gelditzerakoan bertan bizitzea nahiko konplikatu bilakatu baitzen. Eta orain bueltatzeko bete beharreko baldintzak askoz gehiago dira eta bete behar berri horiek itzulera zaildu dute.

Hori horrela izanik ere, badira kontuan hartu beharreko beste erpin batzuk. Garraiolarien urritasuna Europar Batasuneko estatu gehienetan nabaritzen da. Esate baterako, Europako garraio elkarteek egindako azken txostena dio Estatu espainolean 15.000 garraiolariren falta dagoela. Ez da Britainia Handiak duen defizitera iristen, baina sumatzen da urritasuna. Ez da harritzekoa. Bertako garraiolarien sindikatuak askotan salatu dute Europar Batasunak inposatutako liberalizazioaren ondorioz, kanpoko garraiolari asko, batez ere ekialdeko herrialdeetakoak, sartu zirela Euskal Herrian. Lan egiten zuten bal-

dintza nahiko kaskarretan eta garraio sariak behera bota zituzten. Sarritan bertako garraiolariak ezin zuten baldintza horiekin lehiatu eta hortik dator urritasuna. Baina ez bakarrik Euskal Herrian. Txosten horrek dio Errumanian ere 20.000 garraiolariren faltan dagoela, eta herrialde hori izan da gidarien esportatzaile nagusietariko bat Europar Batasunean.

Liberalizazioak lan baldintzak kaskartzen ditu leku guztietan. Garraiolaria izateko inbertsio nahiko handia egin behar da eta prezioek ematen ez dutenean, jendeak utzi egiten du eta gidari berriak ez dira animatzen. Behin merkatua lehertuta, soilik enpresa erraldoiak gelditzen dira. Eskaintzaren eta beharren arteko doiketara iristen den bitartean defizitak agertzen dira eta hortik aurrera garraio enpresa erraldoiek aginduko dute. Argin-

Europar Batasunak liberalizazio eskema berdintsua inposatu du sektore askotan, eta ondorioak antzekoak dira guztietan. Oligopolio handiak sortu dira eta orain horiek agintzen dute

darrarekin gertatzen den bezala, adibidez. Argindarra- ren kasuan, sarrerako mugak askoz handiagoak dira.

Europar Batasunak liberalizazio eskema berdintsua inposatu du sektore askotan, eta ondorioak antzekoak dira guztietan. Oligopolio handiak sortu dira eta orain horiek agintzen dute. Aste honetan argindarraren prezioa dela eta, Estatu espainolean argi utzi dute oligopolioek Gobernuak baino askoz gehiago agintzen dutela. Eta horren ondorioak herritarrok ari gara pairatzen. Britainiarrak agian okertu egin ziren Brexitarekin, baina burujabetza berreskuratu zuten. Ez dugu arrazoirik britainiarrei barre egiteko. Norbaitek behin esan zuen bezala, ez gara mundurik onenean bizi, zikinenean baizik. •

GALLIPOLIKO GUDA, URPEAN

Gatazka historiko hartan hondoratu ziren dozenaka gerraontzi itsaspeko parkean

Gallipoliko penintsulan dago, Turkiako ipar-mendebaldean. Ere-mu hau Dardaneloetako guda ezagunaren eszenatokia izan zen. Bertan aurrez aurre borrokatu ziren, alde batetik tropa britainiarrak (Austrialiako eta Zeelanda Berriko soldaduak barne) eta frantsesak, eta bestetik, Alemaniaren babesa zuten indar otomandarrak.

Itsaspean dauden gerraontzien parkea «iraganera joateko makina moduko bat da, 1915. urtera garamatzana», liluratuta ageri da Savas Karakas, ikertzaile eta urpekaria.

Bidaiaren lehenengo geltokia itsas hondoan 24 metrora dago: «HMS Majestic» Britainia Handiko errege itsas armadako korazatua (120 metroko luzera), Alemaniako itsaspeko batek hondoratu zuena. 100 urte baino gehiago igaro diren arren, armategi guztiak zutik dirau.

Urrutiago –parkeak 150 kilometroko luzera du–, «HMS Triumph» gerraontzia, bere 73

 **MUNDUA /** Dabid Lazkanoiturburu

«Iraganera itzultzeko makina da»: Turkian, itsas azpiko «parke» batean, I. Mundu Gerran urperatu ziren hamalau gerraontziren –britainiar, frantses eta australiarrak– armazoiak gertutik ikus ditzakete urpekariak. Turkiarrek Mendebaldearen inbasioa geldiarazi zuten borrokaldi haietan hondoratu ziren, Gallipoliko gudan.

marinelekin eta ofizialekin hondoratu zena, ageri da 70 metroko sakoneran.

«Hondoratu ziren uneari buruz pentsatze hutsak gerran biziduen estresa sentiarazten dizu», dio Ali Ethem Keskin urpeko argazkilari profesionalak. «Izugarriena zera da, armazoi horiek egun batean desagertuko direla; beraz, zorionekoak gara gu hondakinak ikusteko aukera dugun bitartean», gaineratu du.

«GURE BULARREAN DOMINA»

Gallipoliko itsas azpiko parkea ez da munduan ezagutzen den

bakarra. Esate baterako, Chuukeko urmaela Mikronesian dago, eta II. Mundu Gerran hondoratu zituzten dozenaka itsas gerraontzi daude bertan.

Edo Bikiniko atoloia: Ameriketako Estatu Batuek (AEB) proba nuklearrak egiteko eszenatoki bezala erabili zuten eta Pazifikoko Gerran bertan hondoratu ziren itsas armada estatubatuarraren gerraontzien flota du sakonean.

«Gaur egun, Gallipoli beste aukera bat da», adierazi du Savas Karakasek. «Historiaren pasadizo bat bertan dago hon-

doratuta. Itsasontzi bakoitza gure bularrean domina bat da», gaineratu du.

1915. urtean, tropa aliatuak Gallipoliko penintsulan lehorreratu ziren, Otomandar Inperioari Dardaneloen itsasartearen kontrola kentzea zen gaizki amaitu zuen kanpaina militarren helburua.

Europa eta Asia bereizten duen eta 60 bat kilometroko luzera duen Dardaneloetako itsas besoaren kontrolak Britainia Handiko eta Estatu frantseseko tropei aukera emango zien Errusiarekin itsasoz lotura bat izateko.

PORROTA ETA 100.000 HILDAKO

Turkiako Armadak, osterera, gogor eutsi zion eta aliatuen kanpaina porrot izugarria izan zen, hori bai, 100.000 hildako izan ziren, historialariek egin duten balantzeari jarraituz.

Borrokaldi honek izugarritzko garrantzi sinbolikoa du Turkiako Errepublikarentzat. Era berean, sortze-kutsua izan zuen Australian eta Zeelanda Berrian, bertan milaka eta milaka gazte

«HMS Majestic» Britainia Handiko errege itsas armadako korazatua. AFP



hil baitziren, baina lehen aldiz herrialde haietako ikurraren izenean.

«Urpean aritu nintzen australiar batekin: arreta handirik sortu ez zigun itsasontzi baten hondakinei begira geratu zen eta bertara itzuli nahi zuen. Historiaren atal baten aurrean zegoen, itsasontzi horrek zaurituak zeramatzalako hondoratu zutenean. Hunkigarria izan zen», gogoratu du Ercan Zeyb urpekari instruktoreak.

«AITONAREN ESKUA»

2017. urtera arte debekatuta zegoen bertan sartzea eta igeri egitea, Canakkaleko gune historikoaren presidentea den Ismail Kasdemir-ek azaldu duenez.

«100 urtetik gora itsas azpian egon da altxor historiko hau. Urpekarien komunitatea adi zegoen. Museo honekin, munduko urpekarien helmuga bilakatu da», ziur dago arduraduna.

Lehendik ere, Canakkaleko probintziak erakartzen ditu mundu osoko bisitariak, antzinako Troia hiri mitikoa bertan baitago. «Historiaren lurrina suma dezakezu ur hauen azpian. Hemendik aurrera, itsas azpian historia ikasteko aukera izango dute urpekariak», pozik azaldu da munduko errekor bat duen Derya Can.

Savas Karakasentzat, ordea, ur hauek aztertzeak kutsu pertsonala du. Bere izen turkiarra, Savas, Dardaneloetako kanpainatik dator.

«Nire aitona Gallipolin zegoen 1915ean eta zauritu egin zuten liskarretan», azaldu du.

«Esku bat guztiz kiskaldu zitzaion eta txikia nintzenean erabat ikaratu egiten nintzen ikustean. Ni ukitzen saiatzen zen guztietan eskuari begiratzeko nion eta arraro sentitzen nintzen», gogora ekarri du Karakasek.



«Urpean nabilenean bere eskua datorkit burura. Herdoildutako altzairuak gogora ekartzen dit gerraontziek jaurtitzen zituzten obusek kiskaldu zuten bere eskua... nire aitona eskua helduko banio bezala da».

1915. urteko urtarrilaren 2an eskutitz bat bidali zion Britainia Handiari Nikolas duke gorenak –Nikolas tsarraren biloba– Lehen Mundu Gerran sartu berri zen Otomandar Inperioaren aurka, Kaukason sartu zelako eta handik atera behar zuelako.

ERRUSIAREN HANDINAHIAK

Errusiak asmo garbiak zituen gerran: turkiarrak Europa oso-tik bota, Balkanetatik hain zuzen; Dardaneloak kontrolpean hartuz, bere itsasontziei Bosforotik Mediterraneo itsasora bidea ireki, eta Istanbul Kremlin mendean uztea. Errusiak betidanik amestu zuen orduko Konstantinoplaren (Bizantzio) Ekialdeko Erromatar Inperio ortodoxoa ordezkatzearekin.

Turkiarrek eutsi egin zioten aliatuen itsas erasoari eta ondorengo lehorreratzeari. Eskuineko irudian, urpekariak itsasontzian. AFP



Ententean zeuden bere aliatuek ez zituzten gauzak hain garbi ikusten, baina Moskuk baldintzak negoziatzeko zirela ohartarazi zuen, eta ituna utzi eta Alemania etsaiaren altxora joatearekin mehatxu egin zuen.

1915 hartan Ameriketako Estatu Batuek neutraltasunari eusten zioten eta ez zen orduan erreikusten azken unean gerran

sartuko zenik. Beraz, Errusiak atzera egin izan balu Britainia Handiak eta Estatu frantsesak gerra galduko zuten, ziur.

Inperioaren beherakadaz konbentziturak edo, Winston Churchill orduko Britainia Handiko Almirantegoaren lehen lord-ak –handik bi hamarkadara lehen ministroa izango zena– operazio anfibio bat asmatu

zuen Dardaneloei eraso egin, Istanbulera sartu eta Otomandar Inperioa behin betiko suntsitzeko.

Horrela, bada, errumaniarrak, bulgariarrak eta greziarrak Ententearen alde jarriko zirelako itxaropena zuen.

Gerra kontuetako adituen iritzia eta aholkuak kontuan hartu gabe ekin zion Churchillek erasoari, otomandarrek etsai ahula zirelakoan.

Oker zebilen: borrokaldia 1915eko otsailean hasi zen, gerraontzi britainiarrek eta frantsesek bonbardaketa hasi zuten itsasartearen defendatzen zuten tropa turkiarrak suntsitzeko. Erasoak porrot egin zuen, turkiarrek itsasoan jarritako minengatik.

Horrela, bada, itsasertzeko batera turkiarrek itsasartearen aurkako erasoak galarazi zuten.

LEHORRERATZEKO AGINDUA

Bigarren ekimenak ere ez zuen emaitzarik izan inbasoreentzat.

Churchillek Gallipolitik gertu lehorreratzeko operazioa bultzatu zuen, bi astetan Istanbulera iritsiko ziren esperantzarekin baina turkiar eta arabiar soldaduek aurre egin zieten 9 hilabete luze eta odoltsutan Frantziako, Britainia Handiko, Australiako eta Zeelanda Berriko soldaduei. Azkenean, amore eman eta atzera egin behar izan zuten.

Hori bai, bando bakoitzean 250.000 baja egon ziren (hildakoen eta gainerako zauritutakoen artean). Aliatuek 46.000 hildako onartu zituzten. Turkiak 60.000 hildako zenbatu zituen.

Ordura arteko lehorreratze militar handiena izugarritzko porrota izan zen Churchillentzat eta bere ibilbide politiko azkarra seko gelditu zuen urte luzetan.



Gerraontzien aztarnak eta armazoiak.
AFP

Turkian «Çanakkaleko guda» izenarekin ezagutzen da, «Dardaneloetako kanpaina» da Britainia Handian eta «Gallipoliko guda» Australian eta Zeelanda Berrian.

Gertaera historikoak izan du zineman isla, esate baterako, Peter Weir zuzendariak 1981ean estreinatu zuen “Gallipoli” filma: Mel Gibson han hil ziren bi anaia australiarren gorpuak bilatzen dituen aitaren papera egiten. Gallipoli sindromea ere

Gallipoliko itsas azpiko parkean Turkiako Armadak hondoratu zituen dozenaka gerraontziren armazoiak daude, gehienak Britainia Handiko korazatuak

Aliatuen porrotak balio sinboliko itzela izan zuen turkiarrentzat. Benetako ospea eman zion gero Kemal Atatürk izango zen militarriari, Turkiako Errepublikaren sortzaileari



existitzen da Britainia Handian, lehorreratzeari beldur izugarria adierazten duena, hain zuzen ere.

GARAIPEN SINBOLIKOA

Francisco Veiga Turkiari eta Balkanei buruzko adituak “El Turco” lanean gogorarazten duenez, «garaipenak garrantzi sinboliko handia izan zuen. Batetik, Gallipoli Balkanei begira (garai hartako Rumelia zeritzen) otomandarren lehen base militarra izan zelako sei mende aurretik. Bigarrenez, turkiarrak eta arabiarrek batera borrokatu zirelako, inperioaren garairik oparoena gogora ekarri; eta azkenik, izugarritzko jipoia eman ziotelako orduko potentzia handienetakoari, Britainia Handiko itsas inperioari.

«Gainera, Gallipoliko gudan gehien nabarmendu zen agintari militarrek Mustafa Kemal

zuen izena». Kemalek borroka askotan parte hartu zuen bere bizitzan –italiarren aurka Zirenaikan (Libia), albaniarren, serbiarren eta bulgariarren kontra Balkanetan...– baina benetako ospea Gallipoliko kanpainak eman zion.

Kemalek penintsulan gogor eutsi zuen 19. dibisioa agindu zuen. 1919. urtean Britainia Handiak bultzatuta, greziarrek Esmirnan (Izmir turkieraz), Turkia europarrean, ekin zioten inbasioari aurre egin zion, turkiarrei geratzen zitzaien harrotasun apurra astinduz.

Mustafa Kemal Turkiako Errepublikaren sortzailea izango zen, Kemal Atatürk (turkiarren aita).

Gallipoliko itsasoaren azpian ikus daitezkeen gerraontzien armazoiak dira horren eta duela ehun urteko historiaren lekuko isilak.



AFP

IKUSMIRA

LIBANO ITZALTZEN ARI DA, ZENTZU GUZTIETAN

«Ekialde Hurbileko Suitza» esaten zioten aurreko mendearen erdialdean Libanori. Dударik gabe irudi parziala zen hainbat gizatalde (kristau maronitak, musulman suniak eta xiiak, drusoak...) hartzen dituen eta Frantziaren kolonialismoaren eragin handia jasan duen herrialdearentzat. 1975-1990eko gerra zibilak -nazio-

arteko potentzien arteko tirabiren eszenatoki odoltsua- Libano erabat suntsitu zuen. Baina ba-kea iritsi ondoren bazirudien komunitate ezberdinen arteko gobernuak lehengo ongizatea herri osora hedatuko zuela. Aitzitik, zedroen herrialdea agortzen ari da, ustelkeriak, krisi ekonomiko latzak eta politikakeriek bultzatuta. Iragan astean Libano osoa argindarrik gabe geratu zen zentral energetikoak hornitzeko erregairik ez dutelako. Bide batez, iazko abuztuan Beiruteko portuan -argazkian ilunetan ikusten da- izan zen eztanda odoltsuaren ikerketa eten egin dute politikariek. Libanoren itzalaldia, alde guztietan. Dabid Lazkanoiturburu

HILEZINTASUNAREN BILA

Nicoya penintsula, denbora pasatzen ez den munduko eremuetako bat

Lau kilometro egin ditzake egun batean. 94 urterekin, goiz jaikitzen da *Sato*, eta egurra ebakitzen du Costa Ricako Nicoya penintsulan duen etxetxoan. Bertan, planetako biztanlerik zaharrene-takoak daude.

Bizitzaren luzera genetika-ren arabera izan daiteke, baina entrenatu daitekeen zerbait ere bada, «eremu urdinetako» biztanleek erakusten duten bezala. Ariketa eta elikadura ona dira gakoak. «Nire adinean ondo sentitzen naiz Jainkoak lasai ibiltzeko indarra ematen didalako. Kilometro bat egitera irits naiteke, beste batzuetan 4 kilometro, eta atzera itzultzen naiz, lasai», kontatu dio Saturnino Lopez *Satok* Afp agentziari.

90 urtetik gorako 1.010 costarricarretako bat da bera, munduko bost eremu urdinetako batean bizi dena. Bizi itxaropen handiko biztanleak dituzten lekuak dira eremu urdin delako hauek. Sato bezala-

 **JENDARTEA** / GAUR8

Betikotasunaren bilaketak ez dauka zerikusirik elixir miragarriekin. Elikadura ona, estres gutxi eta ariketa fisikoa lagungarriak dira urte gehiago bizitzeko, Costa Ricako Nicoya penintsulako biztanleek erakusten duten bezala. Munduko «eremu urdinetako» bat da Nicoya, pertsona zaharrenak bizi diren lekuetako bat.

ko biztanle horiek ez ziren hara lekualdatu. Han bizi izan dira beti.

Alkimistek denbora asko eman zuten betiko bizitzaren bila, gaixotasun guztietatik sendatzeko elixirraren aurikuntza helburu. Baina zientzia-fikzioaren parte izan zitekeen erremedioren baten asmakuntzatik urrun, arroza eta babarrunak aipatu ditu *Satok*. «Gero haragi pixka bat, fruta, ahuakatea; hori ondo elikatzea omen da», gehitu du.

«Eremu urdinak» izena Michel Poulain zientzialari de-

mografikoari eta Gianni Pes gerontologoari bururatu zitzairen 2000. urtean ikerketa bat hasi zutenean, bizi itxaropen handiko pertsonak bizi ziren munduko lekuak zehazteko. Barbaglia eskualdean (Sardinia) mota horretako populazioa aurkitu zuten, eta tinta urdinez markatu zuten eremua mundu mapan.

Muturreko bizitza luzeraren indizea (ELI) kalkulatu ondoren, 1880 eta 1900 bitartean Sardinian jaioetako ehun urte baino gehiagoko pertsonen ehunekoa irlako gainerako lu-

rraldeetan baino handiagoa zen, batez ere gizonen artean.

Poulain eta Pesen aurikuntzaren ondorioz, Dan Buettner kazetari estatubatuarrak ikerketa bat hasi zuen munduan zehar, Ipar Amerikako Gerontologia Elkartearen eta National Geographic-en babesarekin, eta antzeko ezaugarriak zituzten beste lau leku aurkitu zituen: Ikaria uhartea, Grezian; Loma Linda, Kalifornian; Okinawa uhartea, Japonian; eta aipatutako Nicoya penintsula, Costa Rican.

Eremu bakoitzak, gainera, bere berezitasunak ditu: Okinawan daude munduko emakumerik zaharrenak; Ikarian zahartzaroko dementsia mailarik txikienak ditu ehun urtekoen biztanleriak; Loma Lindan bizi itxaropena 10 urte handiagoa da AEBetako batez bestekoa baino; eta Nicoyan dago ehun urtekoen bigarren komunitaterik handiena.

Zurezko etxebizitzaren artean, baita makilez eta lokatzez ere eraikitako etxeen artean, landaretzaz eta ur ezin gardena-

Ezker aldean, Saturnino Lopez, 94 urtekoa. Eskuin aldean Clementina, 91 urtekoa, dagoeneko ehun urte dituen Agustin senarrarekin etxeko atarian.
Ezequiel BECERRA/ AFP





goz inguratua, bizi da Clementina, 91 urteko emakumea, 100 urteko Agustin senarrarekin batera. Txitxarren kirrinkak etengabeak diren tokian, Clementinak, pauso laburrez, bere oiloei artoa jaurtitzen die, bazkariak prestatzen ditu eta platerak garbitzen jarraitzen du. 18 seme-alaba izan zituen; 12k bizirik jarraitzen dute.

Bere energiak bizi itxaropenaren edozein zifra gainditzen du: Costa Ricakoa, 80 urtekoa, eta globala, 72 urtekoa, OME-

ren arabera. «Landan lasaiago bizi gara, ez gara arretaz ibili behar, hiriguneetan bezala, ezta?», dio. Helburuak mantentzea funtsezkoa da zahartze osasuntsurako, Aleyda Obando Nicoyako Gizarte Aseguruko Costa Ricako Kutxako (CCSS) Gizarte Laneko buruaren ustez. «Zerbait ereiteko eta lagunak ikusteko planak egiten dituzte», gaineratu du.

Halaber, laguntza sare bat izatea, jarduera fisikoa egitea, organikoki elikatzea eta estre-

Bizi itxaropenaren batezbesteko globala 72 urtekoa da. Costa Ricakoa, berriz, 80 urtekoa. Goian, Nicoyako biztanle batzuk. Behean, bertako parajea eta Gilbert Brenes, Costa Ricako Unibertsitateko demografoa.
Ezequiel BECERRA | AFP

sa jaistea dira bizitza osasuntsu baterako gakoak.

Jose Villegas, *Pachito*, San Juan de Quebrada Honda herrian bizi da, bere zortzi alabetako batekin. Bere 105. urtebetetzean, berriz zaldi gainera igo ahal izatea espero du.

«Orain bizimodua aldatu da. Lehen dena zen osasuntsua eta jendeak pixka bat gehiago maite zuen elkar», gehitu du.

Gilbert Brenes Costa Ricako Unibertsitateko demografoaren ustez, eremu urdin hori

«populazioaren momentum-agatik eta lehen zegoen ugalkortasun handiagatik» haz daiteke oraindik. Baina «20 edo 30 urte gehiagoz bakarrik». Belaunaldi berriek «ez dute hain elikadura praktika onik, eta obesitatea edo diabetesa garatzen dituzte».

Satok, bederatzi seme-alabaren aitak, lanean jarraitzen du. «Esfortzurik ez egiteko esaten didate. Baina nik badakit zerk ematen didan arnasa. Beste bi aihozkada, eta kito».





Saioa Aginako Lamarain
Psikoterapeuta

Mugak ez dira oztopo

Artea gure sormena adierazteko modu paregabea da. Baina artista bakoitzak zerbait ezberdina adierazten du bere lanetan eta obra bakoitzak zerbait desberdina transmititzen digu bakoitzari, batzuetan gure izatearen sakonetik bakarrik uler dezakeguna. Arte mota guztien artean bada bat oso bitxia, non mugak ez diren oztopo. Aitzitik, gizakiaren esentzia hartzen duen artea da, kritikarik eta helburu akademiko edo ekonomikorik gabea.

Jean Dubuffet Frantziako margolari eta eskultoreak *art brut* izena sortu zuen frantsesez, arteari buruz ikasi eta ezagutzen ez zuten egileen arteaz hitz egiteko. Berak, arte korronte-ari izena emateaz gain, obrak ikusgai jarri zituen. Dubuffetek *art brut*-i buruz hitz egin bazuen ere, Roger Cardinalek, Ingalaterrako arte historialariak, ingelesera itzuli zuen arte mota hori eta *outsider art* deitu zion. Hala ere, ez zen bakarra izan; bere aurretik, XX. mendearen hasieran, Hans Prinzhorn psikiatra eta historialariak bere pazienteen bost mila lan baino gehiago bildu eta argitaratu zituen, psikiatriaren eta artearen arteko muga aztertzeke asmoz. Egile honek “eromenaren adierazpena” artearen bidez berreskuratu zuen. Bere lanak gaixotasun mentalak eta sormena pentsatzeko modua irauli zuen. Hain izan zuen irismen handia, ezen gaur egun ere eragin handiko figura izaten jarraitzen baitu artearen historia eta horrek psikologiarekin duen lotura ulertzeko. Egile horien guztien begiradak eta

ulermenak horrelako adierazpen sortzaile bati arte munduaren zirkuituan lekua egin zion.

Adierazteko beharra gizakiarekiko berezko ezaugarria da. Zenbait bizi egoerak, fisiko zein intelektualek, komunikatzeko gaitasuna mugatu diezagukete eta sorkuntza artistikoaren ekintzak adierazpide bihurtu eta izan daitezke. Horrela, arte sorkuntzaren bidez, naturaltasunez adierazten dira hitzetan jartzen zailak diren alderdi inkontzienteak. Orduan, sorkuntza prozesuan, artistak bere obraren gainean proiektatzeko gaitasuna du.

Sorkuntzaren ekintza bera terapeutikoa da eta emaitza, prozesuaren ondorioz sortutako artelana, bigarren mailakoa bihurtzen da artistarentzat. Artista “outsiderrek” beren emozio inkontzientez betetako unibertso txikiak erakusten dizkigute beren sorkuntzetan. Obren bidez, beren pentsamendu eta sentimenduei ordena ematen saiatzen dira. Obra elementu auto-sentatzailea da. Bertan aurkitzen dute babesia. Gainera, obra bakoitza barruan daramatena komunikatzeko modu bat da. Bere barne kaosa egituratzeko metodo bat. Ondorioz, haien artelanak “indartsuak”, barrukoak dira, eta gizakiaren primitibotasunera eramaten gaituzte, egilearen “arimarekin” konektatzera eramaten gaituzte.

Gizakion indarretako bat komunikatzeko gaitasuna dugu. Batzuentzat, arte sorkuntza barnean daramaguna ateratzeko bidea izan daiteke, besteak ikusle bihurtuz eta tartean zubi bat eraikiz. •



Arte sorkuntza komunikatzeko bidea izan daiteke. GAUR8

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

Ikasgaiz beterik datorren hamargarren urteurrena

Aieteko Konferentziaren eta ETaren borroka armatuaren amaieraren hamargarren urteurrena dugu egunotan. Arreta piztu du gaiak berriro ere. Egoera hura ekarri zuten faktore nagusiak eta gertae-
ra haiek sortutako ondorio garrantzitsuenak aztertze-
ko une egokia izan daiteke, eskematikoki bada ere:

– Duela hamar urte gertatutakoa ez litzateke ulertu-
ko aurretik ezker abertzaleak erabakitako estrategia al-
daketa egin izan ez balitz.

– Aieteko Konferentzia zein Adierazpena eta, haiei
erantzunez, ETak ekinbide armatuaren amaiera iragar-
tzeko zabaldutako adierazpena alde aurretik adostu-
tako akordio baten parte ziren. Nazioarteko bitarteka-
riek egin zuten, alde batetik ETarekin eta beste batetik
Espainiako Gobernuarekin
hitz egiten. Zeharkako ne-
goziazioa izan zela esan dai-
teke. «Hoja de ruta resul-
tante» deitu zioten
adostutakoari.

– Aieteko Adierazpenak
izaera integrala zuen, gataz-
karen ondorioei ez ezik ga-
tazkaren muin politikoari
ere erantzun zion.

– Deigarria izan zen Es-
painiako Gobernuari ez ezik elkarrizketarako Frantzia-
koari ere deia egin izana.

– Borroka armatuaren amaiera akordio horretan ja-
sota egon arren, borroka armatua uzteko erabakia ai-
patu estrategiaren aldaketak ekarri zuen. Ez zuen atze-
ra bueltarik, edozein zela ere aipatu bide orriaren
garapena. Beste garaiko negoziazio ereduak gaindituta
ziren eta helburua ziklo aldaketa abiaraztea zen.

– Ezker abertzaleak, ETak eta nazioarteko eragileek,
Norvegiako Gobernua barne, hitza erabat bete zuten;
Espainiako Gobernuak, ez.

– Ezker abertzaleak eta, zehazki, ETak adostutako bi-
de orria ahal bezainbeste garatzea zuten helburu. Es-
painiako Gobernua onartutako Aieteko Konferentziari
indarra kentzen saiatu zen lehen unetik (horregatik ez

zen Patxi Lopez lehendakaria bertan izan). Azken fine-
an, Rubalcabaren taldearen helburua partziala zen, bo-
rroka armatua indargabetzea.

– Hilabete baten buruan, 2011ko azaroaren 20an, PPk
hauteskundeak irabazi zituen. Ordurako Aiete eta ETA-
ren adierazpena eginak izatea garrantzitsua zen; beste-
la, ez zen urratsik egingo. Rajoyk ilegalizazio ziklo berri
bat iragarrita zuen. Gobernura iritsita ez zuen halako-
rik egin, eta ez zuen Norvegiako eremua desegin. ETA-
ren ordezkaritza 16 hilabete egon zen Oslon zain. Egoe-
ra usteltzen utzi zuen PPk, ordea; eta inboluziorako
joera indartu zen. PPk eta PSOEk EAJrekin ebazpena
adostu zuten Espainiako Kongresuan.

– Bake prozesu bat izan behar zuenak beste izaera
bat hartuko zuen, nazioarteko eragileen eta, batez ere,

Bake prozesu bat izan behar zuenak beste
izaera bat hartuko zuen, nazioarteko
eragileen eta, batez ere, euskal herritarren
inplikazioari esker

euskal herritarren inplikazioari esker. Hortik etorriko
zen armagabetzea (2017) eta ETaren desegitea (2018).

– Politikoki, Aieteren ostean, ezkerreko subiranis-
moa indartu egin zen Euskal Herrian, eta Estatu espai-
nolaren eskaintza politikoak gero eta babes gutxiago
izan du. Horrek, halere, ez du oraingoz burujabetza es-
kuratzeko prozesu trinkorik ekarri.

– Presoen zauria zabalik geratu zen. Azken urteetan
urratsak egin diren arren, gaiari ez zaio oraindik behar
bezalako konponbidea eman.

– Hamargarren urteurrenean hainbat ekitaldi, adie-
razpen eta balorazio izaten ari da, egindakoaz eta egin
gabe geratutakoaz. Aieteko Adierazpenaren izaera in-
tegrala erreferentzia baliagarria da, oraintxe gatazka
politikori nola heldu ahal zaion baita gako nagusia. •

KUKULAI SI

Euskarazko aisialdia antolatu eta garatzeko topagune bat sortu da

Euskaltzaleen Topagunean biltzen diren eta aisialdia lantzen duten euskara elkarteek egindako hausnarketa baten emaitza izan da Kukulaisi federazio berria, tokian tokian euskarazko aisialdia lantzen duten egitasmoak antolatu eta garatzeko.

Momentuz hamalau euskara elkarte batu dira, «askoz gehiago izateko bokazioarekin». Lehendik ere euskarazko aisialdi egitasmo sendoak dituzten elkarteak dira, anitzak: Usurbilgo Noaua!, Getxoko Bizarra Lepoan, Hernaniko Dobera, Euskarabentura elkarte, Gasteizko Geu elkarte, Ordiziako Hitzaro, Bergarako Jardun, Atarrabiako Karrikaluze euskaldunon elkarte, Lasarte-Oriako Ttakun, Arrasateko

 **AISIALDIA** / Maider Iantzi Goienetxe

Elgoibarren egin zen, joan den irailaren 25ean, Kukulaisi federazioa eratzeko batzarra. Hamalau euskara elkarte eta Euskaltzaleen Topaguneak indarrak batu dituzte, euskarazko aisialdia antolatu eta garatzeko. Aisialdiak hizkuntzaren bizitzan duen papera nabarmendu, eta Euskal Herri osoko eragileak gonbidatu dituzte.

Txatxilipurdi, Deustuko Berbaizu euskara elkarte, Durangoko Berbaro, Elgoibarko Izarra euskaltzaleen elkarte eta Soroluzeko Pil Pilean euskara elkarte. Horiez gain, Euskaltzaleen Topaguneak eta Kultur Kabia aisialdiko zerbitzu enpresak ere parte hartu dute.

Euskarazko aisialdia garatzen duten bertzelako elkar-

ei ere zabalik daude. Eratze batzarrean Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako elkarteek parte hartu bazuten ere, federazioa Euskal Herri osoko eragileak biltzeko sortu dela nabarmendu dute. Helburua partekatzen duten heinean elkarlan sare bat osatzea proposatzen dute, bazkide ez bada aliantzen bidez. «Forma

Momentuz hamalau euskara elkarte batu dira, «askoz gehiago izateko bokazioarekin». Lehendik ere euskarazko aisialdi egitasmo sendoak dituzten elkarteak dira, anitzak. KUKULAI SI

ikusiko dugu. Ateak irekita ditugu», egin dute gonbidapena.

Zuriñe Gil Usabiaga (Gasteizko Geu elkarte kidea), Irune De la Maza (Euskarabenturakoa), Jasone Mendizabal (Euskaltzaleen Topaguneko zuzendaria) eta June Alegria (Kukulaisiko zuzendari berria) elkartu ditugu bideo dei batean. Aurrez aurre egon izan badira ere, bakoitza herri batekoa izanik telefonoaren edo ordenagailuaren bestaldean topatu izan dute sarri babes. Covidaren garaian hasi ziren biltzen, sektorea larri zegoela eta proiektu berrietarako premia eta gogoia bazela ikusita. «Zer eraiki nahi dugu elkarrekin?». Hortik abiatu ziren.

ENERGIA HANDIA, ILUSIOA

Gil: «Lanean jarraitu behar genuela sentitu genuen, aitzakia krisia izan zen. Elkarte guztiak artikulatzea garrantzitsua zela pentsatu genuen».

Mendizabal: «Covidaren aurretik Topagunearen plan estrategikoan jasota genuen euskararen erabileran aurrera egiteko bereziki lan munduan eta aisialdian jauzi bat ematea. Zoru bat bagenuen eta prozesua azkarra izan zen, energia handia metatu zen hor, ilusioa. Euskararen eza gutzan eman dugun aurrera-pausoa ez da tamaina berekoa izan erabileran. Sabaia jo dugun inpresioa dugu eta gazte belaunaldiak konektatzea behar dugu, gozamenetik. Hortaz, indartu nahi dugun sektore bat da aisialdia».

Nagusiki haur eta gazteen zat dute aisialdi antolatua. Baina kultur gintza ere hor dago, mintzalagunak... Kukulaisi ez dio mugarik jartzen bere buruari. Eta bestelako aisialdi baten garapenarekin amesten du.



Kukulaisi izena hitz joko bat da. «Kuku» kultura da eta «aisi» aisialdia.

ERREFERENTZIA BAT

De la Maza: «Lurralde ezberdinetako elkarteak egoteak egin-go du indarra. Errealitate ezberdin guztiak batzeak eta oinarri horretatik bultzatzeak. Gu berriak gara eta sortu gine-

Covidaren garaian hasi ziren biltzen, sektorea larri zegoela eta proiektu berrietarako premia eta gogoa bazela ikusita. «Zer eraiki nahi dugu elkarrekin?». Hortik abiatu ziren

«Pandemian utzi zen lehen gauza aisialdia izan zen, hezkuntza formalean sartzen ez zena. Denok batera bultzatzen badugu, beste garrantzi bat emango zaio egiten den lanari»

nean ez geneukan erreferentzia potente bat. Prozesu honen bidez ohartu gara ez zegoela denon erreferentzia zen erakunderik. Pandemian utzi zen lehen gauza aisialdia izan zen, hezkuntza formalean sartzen ez zena. Udan kanpaldiak antolatzeko dekretuak azken unean atera ziren. Denok batera bultzatzen badugu, beste

garrantzi bat emango zaio egiten den lanari».

Geu elkartearentzat «bakarrik ez sentitzeko esparru bat» izan da. «Proiektuan sinesten dugu eta beste elkarte batzuk animatuko nituzke, asko ikasten ari garelako eta elkarrekin bagoaz indarra hirukoizten delako. Bakarrik joan gara administraziora pandemian. Ku-

TALDEAN AMETSAK BETETZERA KONDENATUTA

June Alegria Kukulaisiko zuzendari berria entzule gisa gurekin egon da, eta amaieran zera erantsi du: «Jaioberri bat kondenatuta dagoen bezala haztera, Kukulaisi ere kondenatuta dago ametsak errealitate bihurtzera. Nola? Guk eraikiko dugu. Berbak hazi egiten du taldea, talde indartsua dago atzean, indar eta ilusio handia. Falta duguna eratuko dugu. Hasi berria naizen partetik hori esan nahi dut».

Jasone Mendizabal Topaguneko lehendakariak erran du «osagarritasuna» dutela buruan. Oinerrin saretuta daude, adibidez, Haurren Hiriaren ideia lantzen.

Irene De la Mazak (Euskarabentura) eta Zuriñe Gilek (Geu) irekita daudela azpimarratu dute: «Elkarte txikiek esan dezakete ez daukatela denborarik, baina bakoitzak ahal duena jarriko du ahal duenean, ez dago presiorik. Anima daitezela».



Euskarabenturako partaideak, joan den uztailean Urruñan. Patxi BELTZAIZ



kulaisik ematen digu perspektiba orokor hori, eta indarra».

Aisialdia eskaini soilik ez, euskararen erabileran eragiteko esku hartze espezifikokoak lantzen dituzte. Sektorea «dispertsoa da, ahula. Gazteak dira begiraleak, aldatzen joaten dira, eta horrek kudeatzeko era berriak eskatzen ditu», erran du Mendizabalek.

ELKARTRUEA

Oraindik forma eman behar diote Kukulaisiri, baina aurreratu dutenez elkartrukea eta barne formazioa izanen da ardatz bat. Batek zerbait egiten badaki, bertzeen esku jartzeko moduak bilatuko dituzte.

Elkarte bakoitzaren udalekua indartzeaz gain, elkarrekin zer? Aisialdirik martxan ez dagoen herrietan nola laguntzen ahal duten ikusi, erronka digitalari heldu, eskola kirolean zerbait gehiago egin edo bertze zerbait asmatu...

«Oso errealitate ezberdinetan bizi gara, baina aisialdi euskal-

dunaren ikuspegiak batzen gaitu», esplikatu du Geu elkarteko kideak. «Tokian tokiko esperientzietatik ikasten saiatzen gara, eta hori gure herrira moldatzen. Oso-oso aberasgarria da».

BABESA

Euskarabentura ez dago herri batean kokatua; Euskal Herri osoa hartzen du. «Ez genekien nondik hasi, eta besteen atzetik joan gara, pandemian zailagoa izan delako», aitortu du Irune De la Mazak. «Udalekuetara seguruago joan nintzela sentitu nuen, babes hori bagenuen», segitu dio Zuriñe Gil Usabiagak.

«Ez genekien nondik hasi, eta besteen atzetik joan gara, pandemian zailagoa izan delako», aitortu du Euskarabenturakoak. «Babesarekin seguruago joan nintzen», segitu dio Geukoak

«Skypeko gure taldean ‘hauek ere gu bezala daude’, egoera hori sentitzen da. Euskal Herriko beste puntan izan arren, aldameneko berdin baten babesa sumatzen da»

Euskarabenturaren 2018ko edizioko azken eguna, Portugaleten. June PRIETO / FOKU

«Dekretuak ateratzen ziren hamabostean behin, dena aldatzen zen, eta besteei galdetzen genien: ‘Nola banatuko dituzue gelak?’ Badira Euskal Herriko beste hainbat elkarte ni bezala hau egiten. Zalantzak elkarrekin argitzen saiatzen ginen».

«ZER MODUZ ZAUDETE?»

Euskarabenturakoarentzat «ez da bakarrik administrazio edo erakunde handi baten babesa. Gure Skypeko talde horretan jada babesa ikustean, ‘listo, hauek ere gu bezala daude’, egoera hori sentitzen da. Euskal Herriko beste puntan izan arren, aldameneko berdin baten babesa sumatzen da».

Gil Usabiaga: «‘Zer moduz zaude? Zer moduz udalekuak?’ galdetzen diogu elkarri».

De la Maza: «Bakoitza gure bulegoan gaude: izen-emateak egiten ditugu, familia eta umee-kin egoten gara... Badakigu hainbat elkarte gaudela, baina harremana egitean, hurbiltasun eta konfiantza hori sortzean, go-

goa dut galdetzeko: ‘Zer moduz zabiltzate?’».

AMETS HANDIAGOETARAKO GAI

«Lokatzetan zaudetenok, ‘ni bezala nor dabil?’ galdetzen duzue. Erantzukizun ariketa bat da», erantsi du Topagunekoak. «Gure baliabideak optimizatzen ditugu. Behin zerbaitetan asmatzen bada partekatu egiten dugu. Amets berriak egiteko ausardia ere badugu, bakarrik ezin duguna. Elkarrekin gauza handi-agoak amesteko gai gara. Euskarak, aisialdi hezitzaileak, behar ditu amets berri horiek».

Adibidez, «euskal aisialdi hori ematen ez den herri edo gunee-tara heltzen bagara eta denon artean lehen txinparta hori piztea lortzen badugu, euskal aisialdia sortzeko, bikaina litzateke», dio De la Mazak. «Oraintxe bakoitza gure esparruan eragiten ari gara, batzuetan ez gara gehiagora heltzen. Sekulako lorpena litzateke bakoitza gure esparrutik atera, eta esatea: ‘Hemen zergatik ez gaude?’ Piztu, bidea egiten utzi eta bultzatzea. Nik uste egin dezakegula».

Gil: «Handian eragitea».

De la Maza: «Ohituta gaude txikian pentsatzera, gure esparruan. Honaino helduko gara. Goazen luzatzera, gero moztu behar badugu moztuko dugu. Indarra badago. Beldurrarekin ere sartu gara, nahasketa bat egon da emozio aldetik».

Gil: «Gehiago arriskatzeko aukera emango digu. Ez gara ausartzen elkarteetan, agian elkarrekin bai. Administrazioarekin lotura egiten denean, normalean murrizteko izaten da, proiektua txikitzeko. Eta hurrengoan txikiarekin zoaz».

Geukoentzat «luxu bat» izan da bileretan egotea. «Orain arte ez genuen konpartitzeko aukerarik. Eta pila bat ikasi dugu. Ez genuen hainbeste ezagutzen

egiten zuten lana, noraino hel-
tzen diren, zein egoera duten».

Errate baterako, Irune De la
Mazak pazientzia hartzen ikasi
du. «Ez gara helduko, dekretua
ez da ateratzen... Bileretan ea
jendeak zer dioen. Nahiz eta
Skype batean egon tenperatura
hartzen dugu eta beste ideiar
batekin ateratzen gara. Espe-
rirentziadun jendea pazientzia
hartzen ari da, goazen berdina
egitera. Harremanak norekin
egin ere jakiten dugu».

AISIALDIAREN GARRANTZIA

Jasone Mendizabalek adierazi
duenez, Araba, Bizkai eta Gipuz-
koan behintzat eskolak ikasleek
euskara jakinen dutela bermat-
zen du, baina gaurko gazteen
gehiengoa familia ez-euskaldu-
netatik dator. Lorpen bat da ho-
ri, ezagutza unibertsalizatu da,
baina kasu anitzetan familian,
auzoan, eskolaz kanpoko harre-
manetan ez dute euskaraz min-
tatzeko aukerarik. Eta aisialdi
euskalduna eskura edukitzea,
gozamenetik, pasioa sortzen du-
ten ekintzetan euskaraz egitea
funtsezkoa da.

«Ezagutzak gora egin ahala
orokortu beharko litzatekeen es-
kaintza da. Topera indartu be-
har da euskarazko aisialdi eus-
kaltzalea, horretan eragiteko
bokazioa daukana. Euskaraz egi-
ten baduzu baina ez baduzu
maitasuna transmititzen, ez ba-
duzu goxatzen, haurrak hori ere
jasotzen duelako».

KOMUNITATE OSOAN ERAGIN

Ametsen planoan arituz, mugaz
gaindiko harreman hori gehitu
nahiko luke Topaguneko zuzen-
dariak. «Euskal komunitate oso-
an eragin nahian ari gara. Eus-
karabenturak funtzio polita
betetzen du, baina proiektu ba-
karra da. Zenbat egin ahal ditu-
gu? Eta nola elkartu hezkuntza-
ren perspektibatik? Euskarak

komunikatzeko ematen duen
aukera, mугen gainetik, horren
garrantzi soziolinguistikoa ika-
ragarria da», defendatu du.

Aisialdiak %100ean euskaraz
beharko lukeela uste dute Kuku-
laisikoek. Eskaintza egin egiten
da, paperean behintzat, baina
errealitatea ezberdina da, Irune
De la Mazak ohartarazi duenez.
Adibidez, saskibaloia euskaraz
eskain dezakezu, baina horrek
erantzukizuna hartzea eskatzen
du, antolatzea, prozesua zabala-
goa baita. Entrenamenduaz gain
partida dago. «Meloia handia
da. Ez da bakarrik eskaintza, ge-
ro errealitatea zein den ikusi be-
har da».

BIHOTZAK BAKARRIK EZIN DU

Erreportaje honetan ideien pla-
noan aipatzen ari garen hau
guztia plangintzara eramane
dute Kukulaisi federazioan:
«Proiektu berrietarako baliabi-

**«Euskal aisialdirik ez den gunetara heltzen
bagara eta denon artean lehen txinparta hori
piztea lortzen badugu sortzeko, bikaina
litzateke», adierazi du De la Mazak**

**«Ohituta gaude txikian pentsatzera, gure
esparruan. ‘Honaino helduko gara’. Goazen
luzatzera, gero moztu behar badugu moztuko
dugu. Indarra badago», erantsi du Gilek**

deak lortu beharko ditugu, ea fi-
nantzazioa eskuratzen dugun
ikusi, gure lanaren osagarri di-
ren helburuetarako guretik zer
jarri ahal dugun baloratu, gure
xedeekin bat egiten dutenekin
nola saretu aztertu...

«Bizirik eta indartsu egoteak
jada energia eskatzen du, ez da-
go ezer bermatuta, sekulako
ahalegina eskatzen du bakoitzak
bere herrian lan egiteak, babes
zalantzazkoa izaten delako, zail-

tasunak izaten direlako egune-
ro: prekaritatea, babes falta...
Aniztasuna dago, toki batzuetan
gehiago sinesten da eta harago
joan nahi da, baina babesa be-
har da eta lobby lana egin nahi
dugu horretan. Dagokion le-
kuan sektorearen babesa indar-
tzeko lan egingo dugu. Aliantza
asko beharko ditugu, babes pu-
blikoa ere bai. Gogoak eta biho-
tzak bakarrik ezin dute. Jaiobe-
rriak gara».

Geu elkartearen txosna
irekiera, 2018ko abuztuko
jaietan, Gasteizko Aihotz
plazan.
Endika PORTILLO / FOKU





Unai
GAZTELUMENDI

iRRITZIA: {





PANTAILA TXIKIAN

Gaizka Izagirre Brosa

Bilakaera

Zinemaren mundu zabala osatzen duten genero guztien artean, haxe izan liteke, ziu- rrenik, gehien mespretxatzen dena. Egia da urtero estreina- tzen diren telesailen artean, portzentaje oso altu bat izen- buru oso kaskarrei dagokiela, baina gainerako genero kon- kretuak banan-banan azter- tuz gero ez al da antzekoa gertatzen? Akziozko zenbat telesail aipagarri estreinatzen dira urtean zehar? Eta kome- dia erromantikoak?

Beldurra, urteen poderioz eta batez ere garai jakin ho- rren testuinguruaren arabera, eraldatzen joan den kontzep- tua izan da. “Godzilla” adibi- dez, Gerra Hotzaren garaian, eraso nuklearrarekiko zegoen beldurragatik sortutako iru- dia izan zen. Munstroak izan ziren hasieran, espirituak eta exorzismoak 70eko hamarka- dan, *slasher* eta serieko hil- tzaileak 80ko hamarkadan eta abar. Generoa munduan gertatzen zenaren eskutik zihoan, gizarteak zuen beldu- rra fikzio moduan gauzatzen zen, azken finean. Baina izen- buru horiek saltzeko behar horretan, promozio kanpai- nak sartzen hasi ziren.

Marketin kanpainak

2021era bueltatuz, eta adibide konkretuekin jarraitze aldera, eremu honetan azken biz- pahiru urteetan zalaparta gehien sortu duten filmak “Get out”, “It Comes at Night”, “Babadook”, “A Quiet Place”, “Us”, “Hereditary”, eta “IT” izan litezke. Pertsonalki, sen- tsazio berbera izan dut guz- tiekin. Film interesgarriak, bi- kainak batzuk, baina beldurraren alderdia nahiko



Beldurraren beldur?

«Urteko telesailik beldurgarriena», «sekulako beldurra pasatuko duzu», «AEBetan estreinatu zen eta zora- bioak eragin zituen»... amua heltzeko helburuz, azken urteetan genero honetako ekoizpen bat estreinatzen den bakoitzean, esaldi horiekin bonbardatzen gaituz- tela ohartuko zinen. Baina ez hori bakarrik, erabiltzen dituzten trailerrak ere ileak puntan jartzeko modukoak izaten dira. Behin telesaila estreinatu eta ikusten ditu- gunean ordea, ez al zaizue gertatu «ez zen hain bel- durgarria izan» edo «ez dut batere beldurrik pasatu» bezalako esaldiak jaurtitzea? Gaurkoan beldurraren inguruko hausnarketa txiki bat mahaigaineratu nahiko nuke, eta bidez batez, jakina, oso gomendagarriak diren sortzaile zein telesailak aipatu.

ahula –“Hereditary” eta “Ba- badook” salbu–. Hori bai, guz- tietan, saltzeko erabilitako es- trategia, berbera: «Urteko film beldurgarriena». Askok diote errua dela sorpresa gai- tasuna galtzen ari garela. Ikus-entzunezko edukiak gero eta gehiago, gero eta azkarra- go kontsumitzen ditugun mundu honetan, segundoero era guztietako irudi bortitzak irensten ditugulako batik bat. Gauza gutxik sortzen dute harridura gaur egun, eta are gutxiago beldurra, jakina. Baina nire ustez, beste alderdi batek du erru handiena: mar- ketin kanpainak.

Lehenik eta behin, filmak promozionatzeko erabiltzen dituzten trikimailuak iruzur- tiak iruditzen zaizkit. M. Night Shyamalan zinema zu- zendariak “The Village” eta “Lady In the Water” estreina- tu zituenean, adibidez, mila-

ka ikuslek alde egin zuten ha-serre bizian zinema aretoetatik. Baina errua ez zen zuzen-dariarena izan, trailerretan agindu zizkieten munstro eta ikarak inondik agertu ez izanarena baizik. Oso erraza da *teaser* tranpati bat sortzea edo kartel deigarriak diseinatzea jendea erakartzeko, baina gero zer? Epe luzera, desgiten den zerbait da. Drama generoko filmak saltzeko “malkoak” saltzen ez badira, zergatik beldurrezkoekin sus-toak bai?

IZEN GOMENDAGARRIENAK

Mike Flanagan;
«The Haunting of
Hill House» eta
«Midnight Mass»

NETFLIX

Pantaila txikian azken urteotan lanean dabilen sortzaile-rik aipagarriena Mike Flanagan estatubatuarra da, zalantzarik gabe. Pentsa noraino heldu den beldurrarekiko duen lanketa eta ezagutza, Salem hiri ezagunean jaiotako sortzaile honen lana Stephen Kingek eta William Friedkinek goraipatu baitute. Egile honek pantaila txikian egin duen lan guztia ikustea gomendatzen dizuedan arren, bereziki bi izenburu iruditzen zaizkit txapela kentzeko modukoak: “The Haunting of Hill House” maisulana eta aurten estreinatu duen “Midnight Mass”, biak Netflixen topatuko dituzue.

Nick Antosca;
«Channel Zero»
eta «Brand New
Cherry Flavor»

HBO eta NETFLIX

“Channel Zero” izeneko antologia fantastiko-beldurgarri honek, hiri-kondairen izu



unibertsala modu morboso eta oso eraginkorrean islatzen du. Nick Antoscaren garunetik sorturiko lau denboraldiak erakusten dute generoaren barruan dagoen egilerik onenetarikoa dela. Sortzaile berak aurten, “Brand New Cherry Flavor” telesail

sailkaezina ere estreinatu du. Ez da agian ikusle guztiek estimatu edo gozatuko duten proposamena. Zerbait errealista edo sinesgarritasunaren aldeko hautua egiten duen telesail baten bila bazabiltza hobe duzu guztiz aldentzea. Ez erritmoa, ez elkarriketak,

ezta pertsonaien erreakzioak ere ez baitira batere errealistak. Bere arau propioei jarraitzen die eta bere kabuz erabakitzen du zer elementuri eman garrantzia eta zeri ez. Hori bai, joko horretan hasieratik sartuz gero eta arau horien alde arraun egiten baduzu –niri gertatu zaidana– harrapatuta geratuko zara. Zinema zuzendari izateko hautagaia den Lisa Nova da gure protagonista eta 1990eko Los Angelesen girotzen da trama nagusia. Horraino denak nahiko arrunta dirudien arren, naturaz gaindiko mendeku bidaia batean murgiltzean guztia hankaz gora geratuko da. Telesail apur bat surrealista, hipnotikoa eta batetz ere oso berezia.

«The Terror»

AMAZON

Franklingo espedizio galduari buruzko kontakizuna. «Royal Navy HMS Erebus» eta «HMS Terror» esplorazio polarreko itsasontzietako tripulazioak esploratu gabeko lurralde batean barneratuko dira, ipar-mendebaldeko pasabidearen bila. Istripu baten eraginez, ordea, itsasontziak izotzean harrapatuta geratuko dira, izoztuta eta isolatuta. Atmosfera hotz eta itogarria erabiliz, beldur mota desberdinak narrazio bakar batean biltzeko gai den ekoizpen bikaina da honakoa, izuz eta edertasunez beteriko istorio batera garamatzana.

«American Horror
Story»

DISNEY +

Telesail antologikoa izanik kontuz proposamen honekin, denboraldi batzuk bikainak izan arren, besteak nahiko kaskarrak iruditzen baitzaiz-

kit. Ezin ukatu bestalde, bel-
durraren kontzeptua, esteti-
ka berezi eta boteretsu bati
uko egin gabe, oso telesail
gutxi ez bezala pantailara-
tzea lortu duela Ryan
Murphy zuzendariak. Denbo-
raldi bakoitzean testuinguru
zehatz bateko istorio bat
azaltzen dute. Lehen denbo-
raldia etxe batean dago giro-
tuta; bigarrena, zahar etxe
batean; hirugarrena, akelarre
baten inguruan; laugarrena,
zirku bati buruzkoa da; bos-
garrena hotel batean koka-
tzen da eta abar. Ausarta, ori-
ginala, estetikoki oso
ahaltsua baina irregular sa-
marra.

«Calls»

APPLE TV+

Proposamen originala, berri-
tzailea eta ausarta da. Ideia
erraza da, baina inola ere ez
sinplea. 13 eta 20 minutu ar-
teko bederatzi istorio dira
guztira, beldurra, thrillerra
eta suspensea uztartzen di-
tuztenak. Pertsona ezberdi-
nen arteko telefono deietan
oinarritzen dira kontakizu-
nak, baina erne, soilik soinu-
a entzuten delako telesail oso-
an zehar, ez dago irudirik. Ti-
ra, pantailan irudi batzuk ba-
daude, baina entzungai
ditugun elkarrizketa horiek
indartzeko eta biribiltzeko
sortu dituzten soinu-uhin
moduko batzuk dira, eta pro-
tagonisten elkarrizketen tes-
tuak ere irakurgai daude, bai-
na hori besterik ez. Esperimen-
tu aparta iruditu
zait. Murgiltze lan ikaraga-
rriaz ahalik eta gehien goza-
tzeko, aurikularrekin ikuste-
entzutea gomendatzen dizut.
Burmuinari eta ikusle bakoit-
zak erakutsi dezakeen irudi-
menari aurre egiten dion tele-
sail berezia.



«Marble Hornets»

YOUTUBE

Nolakoa izango litzateke “The
Blair Witch Project” filma,
gaurko mundu interaktiboan
filmatu izan balitz? “Marble
Hornets” telesailaren oso an-
tzekoa ziurrenik, websail ho-
nek *found footage* (aurkitu-
tako metrajea) errealizazio
estiloarekin jotzen baitu. Alex
Kralie “Marble Hornets”
izeneko bere lehen pelikula
filmatzen ari den zinema
ikaslea da. Bat-batean proiektu-
a amaitu gabe uztea eraba-
ki eta bere lagun Jayri graba-
tu duen guztia ematea
erabakitzen du, baldin eta
grabaturiko irudiak ikusten
ez baditu edo itzultzen saia-
tzen ez bada. Hain zuzen,
zinta horiek osatzen dituzte
websaileko atalak, «ENTRY»
izenekoak, eta 30 segundotik
15 minutura arte iraun deza-
ketenak.

«Historias para no dormir»

AMAZON

Narciso Ibañez Serradorrek
sortu, zuzendu eta aurkeztu
zuen Espainiako beldurrezko
telesail mitikoa. Edgar Allan
Poe edo Ray Bradbury bezalako
idazle ospetsuen kontakizunen
egokitzena, nahiz beste hain-
bat idazleren jatorrizko gidoiak
ere pantailaratzen ziren. Aitzin-
daria izan zen, garai hartan es-
painiar zineman edo telebistan
gutxi jorratzen baitzen beldu-
rezko generoa. Pantaila txikira
eramandako beldurrezko na-
rratiba, herrialde anglo-saxoie-
tan edo erdialdeko European oso
errotuta zegoen arren, apenas
tratatu baitzen Espainian. Iba-
ñez Serradorrek, *Luis Peñafiel*
ezizenarekin gidoiak egin, zu-
zendu eta idazteaz gain, atal ba-
koitza Rod Serling-ek “The Twi-
light Zone” telesailan edo
Alfred Hitchcock-ek “Alfred



Hitchcock Presents”-en estilora
aurkezten zituen.

«X- Files»

DISNEY +

Funtsean zientzia-fikzio eta
misteriozko ekoizpena izan
arren, egia da ez dela zehazki
beldurrezko telesaila, baina
atal konkretu batzuetan nera-
bezaroan sentitu nuen beldu-
rra oso ekoizpen gutxi sorra-
razi didatela aitortuko dizuet.
90eko hamarkadako telesail
arrakastatsu eta jarraitueneta-
koa izan zen, mundu osoan za-
le ugari izatearen ondorioz
kultuko telesail bilakatu den
arte. 217 atalen artean, beldu-
rezko antologia izaera besar-
katzen duten asko nabarmen-
duko nituzke; hala nola
Squeeze (1x03), The Host
(2x02), War of the coprophages
(3x12), Home (4x02), Chin-
ga (5x10), Field Trip (6x21), X-
Cops (7x12), Badlaa (8x10),

Scary Monsters (9x14) edo Fa-
miliar (11x08), adibidez.

«Chernobyl»

HBO

Baliteke beldurrezko telesail gi-
sa aipatzea apur bat zentzuga-
bea izatea baina HBO eta Sky-
ren telesail laburrak beldurraz
eta izuaz hitz egiten du, eta ja-
kin gabe ere hiltzen zaituen
etsai ikusezinaz. Pantailan ikus-
ten dugun guztia beldurgarria
eta lazarria denik ez didazue
ukatuko. Bost atalez osatutako
telesail motz honek Sobietar
Batasunak 1986ko apirilean ja-
san zuen desastre ikaragarria
kontatzen du, AEBetako betau-
rrekoekin, jakina denez. Txe-
rnobylgo zentral nuklearrak ez-
tanda egin zuen egunean
bertan kokatzen gaitu lehen
ataletik bertatik, apurka trama
zientifiko-politikoaren korapi-
loak askatzen joateko. Hotzika-
rak sortzen dituen telesaila.



Itziar Elizondo

Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

Zahartzaroa zaharberritu



Emakumeen zahartzaroaren inguruan estereotipo batzuk erantzi orduko jantzi ditu berriak egungo jendarteak.

GAUR8

Zaharrek islatzen dute erabat gure gizarteak baztertzen duen guztia edo, hobeto esanda, gizarte horrek eraikitako zahartzaroan pairatzen dute haiek funsgabe hamaika zama. Bada, agure eta atsoen bizitzak ez datoz bat egungo dinamika pertsonal eta kulturalekin, denak izan behar baitu erakargarria, eraginkorra, emankorra eta presaka lortu beharrekoa.

Berrikitan plazaratutako “Yo, vieja” (Capitán Swing, 2021) liburuan Anna Freixas egileak emakumeak beste zahartzaro bat eraikitza gonbidatzen gaitu. Pertsonalki eta politikoki amankomunean sortu beharreko zahartzaro hori askatzaila izan dadin, lehenik eta behin adindu gaztearen loturak eta torturak ere gainditu beharko ditugu, egon badagoelako gaur egun agindu kultural berri bat: adineko emakume gazte eta aktibo bat izatea. Emakume zaharren gorputza kulturalki debalutua dagoenez, zoriontasunaren industriak ondo

baino hobeto daki nola heldu eda detua izatearen estigmari: behin eta berriz gorputz gaztearen utopia aseezina astinduz estetika praktika diziplinarioak direla medio. Eta, bestalde, ezinegonak dakarzkien une txarrak, ingurunearen bihozgabetsunari baino gehiago, banakakoei leporatuz. Izan ere, egilearen arabera, dinamismoa inperatibo immateriala bihurtu da, zeinak galaraz dezakeen bizimodu lasai, eros eta kontenplatiboa bizitzea.

Beraz, egungo emakumezko adin-
duak aurreko hamarkadetan beren sexualitatea liberatzen saiatu ziren bezalaxe, egokitu zaie orain gerontofobiaren atzaparretatik askatzea. Luzaroan depresioa, menopausia, alarguntza edo habia hutsa izan dira gai nagusiak. Esperientzia horietako gehienak, hain justu, emakumeak gizonen mendeko izakitzat hartzearekin lotuta daude. Freixasek dio badela garaia emakume adinekoei benetan eragiten dietenak izendatzeko eta aztertzeke: erretiroa, pobrezia, osasuna, sexualitatea, zahartzeko esperientzien aniz-

tasuna, egoitzak, habitata edo eda-dismoa.

Boteririk ez izateak, ziurgabetasun ekonomikoak, edo karga afektibo zein emozional astunak, itxuraz, ez dute zerikusirik gorputzarekin. Desberdintasuna da, ordea, emakumeak gaixotzen dituen, urtez urte gaizki bizitzeak bere prezioa baitu emakumeen osasunean. Osasungintzaren jokaera pasiboak bultzatuta, zama handiko motxila horrek, denbora pasa ahal, nagusien gorputzaren medikalizazioa ekarri du. Osasun sistema ez da lokatz sakonetan sartzen, eta nahiago du adinaren aitzakian sinpleki medikuek pilulak gora eta behera agindu ditzaten. Horren atzetik datzan ideologiak zahartzaroa zahar-haurtzen du, adinekoei agentzia kenduz. Etorkizuneko gure bizitza zahar beteak eraikitzen hasiko bagara, gaurtik bertatik izango da. Horretarako ardura pertsonal eta komunitarioak bateratu beharko ditugu zahartzaroa benetan zaharberritzeko. •

{ koaderno } Iker Barandiaran

Sinismenaren industria

Duela gutxi bizilagun baten hiletara joan nintzen eliza batera. Ez daukat, publiko izaera hartu nahi eta narru eta jazarpen handiz lortu duen, eremu pribatu horietara sartzeko ohiturarik, baina hildakoa-
ren eta nire familiaren hurbiltasunagatik egin nuen aspaldiko partez “ohitura apurketa” hori. Bada, gorpua eliza barrura sartzean, abadeak izugarritzko begirakunea egin zidan. Zer pentsa eman zidan eta horregatik jarri naiz idazten. Ez naiz ni elizak erretzea eskatzen duen horietarikoa; izan ere, eraikin horiei bestelako erabilera ematearen aldekoa naiz. Horra hor, esaterako, Bilborock, Azpeitiko San Agustin zein Arrasaten dagoeneko salgai dagoen San Frantzisko eliza, besteak beste.

Era berean, baditut beren seme-alabak bataiatuak eta jaunartzea eginda dituzten hurbileko lagunak ere, nahiz eta guztiok bizitakoa eta ikusi dugun guttia ikusita eta are gehiago XXI. mendean, erabat ‘kitsch’ iruditzen zaidan praktika horiekin oraindik jarraitzea. Hala ere, errespetatzen ditut, jakina, kristauak, musulmanak, budistak edo bestelako sinesmenak dituztenak bezala, ez gehiago eta ez gutxiago.

Baina ezin dudana jasan da ohitura edo jazarpenagatik belaunaldiz belaunaldi eliza jakin honetan –katolikoan– umetan sartu gintuztelako, Espainiako estatuan haien kide garela aintzat hartu eta, horren ondorioz, Eliza katolikoa deritzon enpresa pribatu erraldoi horrek Estatuaren aldetik halako laguntza, salbuespen eta babes itzela jasoz izana, Estatu akonfesionala dela alde batera utzita. Ez da bidezkoa, eta ez dut nahi ni horren erantzule (txikietako bat) izatea.

Argudio ugari ditut Eliza katolikoaren (eta beste elizen) kontra, eta horregatik erabaki nuen ez nuela inola ere horren parte izan nahi. Umetan apuntatu ninduten, bale, baina ez dut haiekiko inolako hurbiltasunik, kontrakoa: gehiago da haiengandik aldentzen eta desberdintzen nauena.

Sinbolikoa da, badakit, ni bakarrik Elizako erroldatik ezabatzea, baina niretzat egin beharrekoa zen; eta hala egin nuen. Eta nire moduan gehiagok egingo balute, asko izango ginateke, eta horrela hasten dira mugitzen/aldatzen gauzak.

Nire herriko parrokoari bataio agiria eskatu nion –nik ez nuen trabarik izan, baina emango ez dizutela uste baduzu, esan ezkondu egingo zarela–; horren fotokopia konpultsatu bat nirekin gorde nuen; *Apostatar.org* webgunetik sinatzeko inprimakia deskargatu eta bete nuen; eta NANaren fotokopia konpultsatu. Eta jarraian gutun azal batean Gipuzkoako Gotzaindegira honakoa bidali nuen: bataiatze agiri originala, *Apostatar.org* webguneko inprimakia beteta eta NAN fotokopia konpultsatuta.

Aste batzuk itxaron ostean, halako batean, Gotzaindegitik dei bat jaso nuen. Donostiara joan eta apostatatze nire arrazoiak emateko hitzordua hartzea eskatu zidaten. Aukeratu nuen eguna eta hara jo nuen.

Bataio agiriaren kopia konpultsatua,
«Apostatar.org» webguneko inprimakia
beteta eta NANaren kopia konpultsatua.
Horiek bidali nituen Gipuzkoako
Gozzaindegira apostasia eskatzeko

Jaieguna zen eta umeak –oraindik txikiak– eramane nirekin. Gotzaindegiko ordezkariari –ez nuen Munilla ikusi!– ez nizkion Eliza katolikoaren gehiegikeriak zerrendatu –nahiz eta merezia duten–, baina azaldu nion ez neukala haien enpresarekin inongo zerikusirik. Onartu zuten eskaera, eta kalera irten nintzen. Martxoak 8 zen eta egina nuen apostasia: emakumeengatik, umeengatik eta niregatik!

Askorentzat –agian gehiengoarentzat– ez bururik eta ez hankarik ez duen errolda baten parte gara, eta horri esker mendeetan izan duen botereari eusten dio Eliza katolikoa deritzon enpresa pribatu batek. Nik oso argi daukat; eta zuk? •

Azken hamar-kadetean hainbat fenomeno azkartu dira : globalizazioa, lanaren prekarizazioa, prekarizazio globala, demokraziaren pribatizazioa, erregai fosilen agortzea, klima aldaketa, zaintzaren krisia... Horren guztiaren erdian teknologiaren garapen izugarriak jauzi kualitatibo bat egin du azken mendean», dio Euskal Herria Digitala plataformak joan den ekainaren 16an argitara eman zuen manifestuak. Haren sinatzaileek beren kezka eta digitalizazioaren gaineko eztabaidaren beharra agertu

zuten, «bilakaera hori soilik elite finantzarioaren alde egon ordez, jendartearen zerbitzura jar dadin». Garapen teknologiko horrek demokrazian, lan munduan, hezkuntzan eta humanitatean izan dezakeen eraginari buruz hausnartzeko “Euskal Herria Digitala, Ziberburujabetzara bidean” jardunaldia antolatu zuten Ipes, OlatuKoop, Teks, Ipar-Hegoa, Manu Robles-Arangiz eta Iratzar fundazioek, atzo Errenterian izan zena.

Manu Robles-Arangiz Fundazioako zuzendari Unai Oñederak azaldu ditu manifestuaren eta hausnarketa horren nondik norakoak.

Manifestu bat zabaldu eta hausnarketa kolektibora deitu duzue. Izan ere, manifestua lehenengo pauso bat baino ez dela esan zenuten.

Bai. Guk, ELA sindikatuak, kezka hori aspaldi geneukan. Pandemia aurretik jardunaldi bat egin nahi genuen digitalizazioaren inguruan, Industria 4.0 eta abarrez, digitalizazioak lan munduan izango zuen eta izaten ari zen eraginaz... eta, adibidez, argitalpen bat egiteko Manu Robles-Arangiz fundazioko kideak OlatuKoopeko Talaioseko jendearekin harremanetan jarri ginen, Joseba Permache artikulu bat idatzi zuen “El Salton”... Guk genuen kezka beste

«Doako produktuak ematen dituzte, baina hortik irabazi asko izaten dituztelako. Ahalik eta pertsona gehien datuak jasoz negozioa egin eta herritarren gaineko kontrola areagotzen dute»


batzuek ere bazuten, eta ez dakit nondik atera zen, Iratzarren eta OlatuKooopen artetik edo, hainbat eragile kezka berarekin eta zein bere aldetik ibili beharrean, zergatik ez genuen elkarrekin hitz egiten denen artean erronkei hobeto erantzuteko.

Pandemia aurretik Errenterian elkartu ginen zenbait eragile, 30 bat pertsona, halako saio bat egiteko, bakoitzak esateko digitalizazioaz zer ulertzen duen, zerk kezkatzen duen... Atera zen guztia arbel batean jaso genuen eta konturatu ginen batez ere lau eremutan banatzen zela gure kezka. Lau eremu horiek dira manifestuan agertzen diren lau ardatzak. Hortik abiatu zen. Eta zerk batzen gaitu? Kapitalismo digitalaren ikuspegi kritiko batek. Ez dugu onartzen inposatu nahi zaigun digitalizazio eredu hau, kapitalak gehiago irabazteko herritar xumeak are gehiago kaltetzen baititu.

Manifestuan ikusiko zenuenez, batez ere kezkak eta galderak dira, erronkak... ez dugu erantzun finkorik, horregatik dugu helburu eztabaida mahai gainean jartzea, bestela, ematen du gainera datorkigun zer-bait dela, dagoeneko emanda eta irentsi beharrekoa, digitalizazioa hau soilik posible dela onartuta; hau da, multinazional nagusien kontu bat eta beste ezer ez. Eta gai honekin kezkatuta dagoen jende gehiago erakarri nahi dugu. Hortik etorri zen jardunaldiaren ideia.

Burura datorkit, esate baterako, duela zenbait urte maiz entzuten zela Internetek informazioaren demokratizazioa ekarriko zuela.

Bai, edozeinek edozer irakur dezake. Pentsa dezakezu lehen informazioa boteredunen esku zegoela, hedabide nagusiek za-



«Digitalizazioa dena hobeto antolatu eta guztiok hobeto bizitzeko erabil daiteke, eta eztabaida hori ez da mahai gainean jartzen»

baltzen zutena irentsi besterik ez zegoela, ikuspegi kritikoak ezin zuela bere ahotsa zabaltu, eta edozeinek nahi duena edonon idazteko aukera eman zuela Internetek, baina gero konturatzeko zara, alde batetik, gaininformazioa sortzen dela, hainbestekoa non desinformatu egiten garen, eta gainera *fake news* direlakoak eta azaltzen dira. Eta, beste alde batetik, algoritmoekin multinazional handiek izugarritzko gaitasuna dutela beren mezua besteen gainetik jartzeko. Bai Facebookek, bai Googlek nahi dutena zabaltzen dute. Orduan, demokratizazio horrena, bai, teorian izan zitekeen, baina praktikan monopoliorantz joatea da, eta ikusi dugu hauteskundeetan ere eragin dezaketela.

Demokraziaren alor horretan, arrakala digitalaz ere hitz egin behar da. Bermatu egin behar da denek gaitasun digitalak eta baliabide digitalak ere edukitzea, digitalizazioak ematen duen demokratizatzeko aukera hori benetakoa izan dadin eta desberdintasun gehiago eragin ez ditzan.

Teknologiaren garapena ikaragarria izan da azkenaldian, baina kapitalismoak beti baliatu izan ditu teknologiak bere interesetarako, aurrerabidearen izenean.

Azkenean, boterea dutenak gure aurretik doaz. Erabaki batzuk hartzen dituzte eta eztabaidara pixka bat berandu iritsi garen irudipena daukat. Eusko Jaurlaritza bera entzun dugu Industria 4.0 egitasmoaz hitz egiten, eta gu kezkatzen hasi gara, baina aurretik bazetorren eta 2000tik hona sekulako jauzia egin du. Guk esaten dugu digitalizazioa erabiltzen ari direla herritarron datuak bereganatzeko, gure gaineako kontrol

handiago izateko eta beraiek gehiago irabazteko, baina digitalizazioa, jakina, dena hobeto antolatu eta guztiok hobeto bizitzeko erabil daiteke, eta eztabaida hori ez da mahai gainean jartzen. Digitalizazioaren gaia mehatxu bezala erabiltzen da, mamu bezala, lan baldintzak are gehiago okertzeko, esaterako: zuk onartu prekarizazioa eta hurrengoa enplegua desagertzea izango da, lan hori egiteko robotak egingo dituzte. Digitalizazioa eta robotizazioa hortik saltzen digute. Hori eztabaidatu nahi dugu. Robotek egiten badituzte atseginak ez diren lanak, goazen lanorduak murriztu eta hobeto bizitzera.

Ustez, hori zen helburua; izan beharko luke, alegia.

Izan beharko luke, baina ikusita dago azkenean digitalizazioak monopolio bat dakarrela, lau handien artekoa, Google, Apple, Microsoft, Facebook eta horiena. Hezkuntzan ere ikusten da. Gure eskoletan, ikastoletan seme-alabak Chromebook-ak erostera, Googlerekin lan egitera behartzen dituzte. Zer ari gara, gure hezkuntza Googleren esku jartzen? Doako produktuak ematen dituzte, baina hortik irabazi asko izaten dituztelako. Ahalik eta pertsona gehien datuak jasoz negozioa egin eta herritarron gaineako kontrola areagotzen dute. Horretara bideratzen dute, besteak beste, publizitatea, bakoitzari zer saldu badakitenean.

Pandemiak areagotu dituzten kezkak?

Kezka sortzen du gure seme-alaben datuak multinazional handien esku uzteak, eta pandemiak hori bizkortu eta kezka berriak sortu ditu: Presentzialak ez diren eskoletan berdintasuna, parekidetasuna dagoen;

nola bermatzen duzun baliabide gehiago dituztenek eta gutxien dituztenek heziketa kalitate berdina jasotzea, ingurune digital hori eta produktuak norenak izan behar diren eta horrek guztiak subjektibotasunean, ikasleengan nola eragiten duen, ikasteko gaitasunean, kontzentratzeko gaitasunean eta abarretan.

Hori humanitate digitalekin lotu daiteke. Gaur egin humanitate bezala ezagutzen diren arloak, gizarte zientziak ere orain digitalki eraldatzen ari dira. Datu asko prozesatzen dira, material asko, baina ez da bakoirik humanitateak digitalki lantzea, baizik eta digitalizazio horiek ere humanitatea aldatzea. Horrek galdera etikoak sortzen ditu, zer aldaketa ekarriko dizkion gizakiari digitalizazio honek, etengabe smartphonetan konektatuta egoteak... zer aldaketa ekarriko duen gizabanakengan eta kolektiboengan, jendartean indibidualizatu egingo garen, eremu kolektiboa galduko dugun. Hori guztia ere eztabaidatu behar da.

Litezkeen alternatibak bilatzeko hausnarketa sustatu duzue. Zein da norabidea, ziberburujabetza?

Bai. Hitz hori esaten ere konplikatu da. Hitz erakargarri edo bitxia nahi genuen eta azken batean ziberburujabetza esan dudan guztiarekin lotuta dago. Digitalizazio eredu honekin datu guztiak multinazional gutxi batzuei ematen ari gara eta gure teknologiaren gainean beraiek erabakitzen dute, ez guk. Teknologikoki burujabe izatea da zer egin geuk erabakitzea digitalizazioa hobeto bizitzeko erabili nahi badugu. Momentu honetan digitalizazioa multinazionalen menpe eta haien mesederako dago, eta berresku-

UNAI OÑEDERRA

MANU ROBLES-ARANGIZ
FUNDAZIOKO ZUZENDARIA

Euskal Herria Digitala plataformako kideak
joan den ekainean aurkeztu zuten
manifestuaz dihardu. Halaber,
digitalizazioaren eraginaz eztabaidatzeko
deiaren nondik norakoen berri eman du.


Xabier Izaga Gonzalez

ratu egin behar dugu. Geuk eraiki geure sareak-eta. Gure helburua ez da teknologiaren aurka egitea, eta hori ere esaten dugu manifestuan; gu ez gara luditak, makinak etorri zirenean deuseztatzen zituztenak lanpostuak desagerraraziko zituztelako, ez gara teknofiloak, ez teknofoboak, eztabaida mahai gainean jarri nahi dugu, digitalizazioa gure onurarako erabiltzea lortze aldera. Izan ere, zeharka, doako produktuekin ezer esan gabe gauza asko kentzen ari zaizkigu eskutik, hezkuntzaren arloan bezala, osasun arloan edo beste batzuetan ere gerta daiteke.

Adibidez, Industria 4.0, robotizazioa, batez ere industriara bideratu dute, eta guk diogu berriz ere zaintza lanak bazterrean utzi direla, lan merkatuan daudenak eta hortik kanpo daudenak. Zaintza lanetan badaude robotek ezin egin dituzten gauzak, eta hori humanitate digitalei lotuta legoke, hala nola harreman afektiboak, behar den konpainia, maitasuna... robotek eman ezin dutena; baina lan fisiko asko bai, zaintza lanak fisikoki ere oso gogorak baitira, eta lan fisikoa arintzeko baliagarria izan liteke robotizazioa. Soldatapeko lanpostuetan zein etxeko lanetan. Baina horretaz ez da hitz egin. Esaten den moduan, azpiegitura teknologikoa, hardwarea eta softwarea behar ditugu, eta horiek herritarrentzat, komunitatearentzat erabiltzen badiugu, hobeto bizitzeko erabil liteke digitalizazioa.

Botere politikoetan ez da horren aldeko zantzurik sumatzen.

Alternatiba batzuk sortzen ari dira ekonomia sozial eraldatzailearen inguruan, udalerrri eta eskualdeetan. Bai Jaurлари



Jon URBE | FOKU

tza, bai Nafarroako Gobernua interpelatu behar ditugu bide honetan urratsak eman ditza-ten, indarrak metatu eta mobilizatu behar dugu, baina beraien erabaki edo pausoen zain egon gabe, tokian-tokian alternatibak sortzen joan gaitezke. Manifestu honetan eta antolakuntza honetan ekonomia sozial eraldatzaileko sarea dago, Olatukoop, eta haren barruan Teks sortu da, teknologia burujabetzaren inguruan dabiltzan kooperatiben sarea. Beraz, gauza bat da agintariak egin dezaketena edo egin nahi dutena,

eta beste bat beharbada municipalismotik, sindikalismotik eta ekonomia sozial eraldatzaitetik zerbait sortzen joan daitekeena. Eredu txikiak izan daitezke, baina benetan egin daitekeela erakusten dutenak. Software librearen antzera, ez? Badago, badabil eta badaude produktuak Googlek egiten dituenak bezain onak, hain eza-gunak ez badira ere. Digitalizazioaren aitzakian datozen kaleratzeei eta prekarizazioari ere aurre egin diete H&M-ko langileek 50 eguneko greba eginenez eta irabazi dute. Horiek di-

ra alternatiba badela erakusten duten adibideak, nahiz eta txikiak izan.

Besterik nabarmenduko zenuke?

Esaten digute digitalizazioa ere klima aldaketarako eta trantsizio ekologikorako oso onuragarria izango dela, baina ingurumenaren ikuspegitik ere kezka eragiten du. Digitala berdea balitz bezala saltzen dute, hodeia, dena etereoa balitz bezala, baina datu horiek, produktu horiek, makina horiek guztiak egin egin behar dira, energia

«Industria 4.0, robotizazioa, batez ere industriara bideratu dute, eta guk diogu berriz ere zaintza lanak bazterrean utzi direla, lan merkatuan daudenak eta hortik kanpo daudenak»



asko kontsumitzen dute, kutsagarriak dira, agortzen ari diren material arraroak behar dituzte... Bizi! mugimenduak ere sinatu du manifestua eta halako artikulu bat idatzi du, manifestuan zeharka aipatzen zena, digitalizazioak klima aldaketan eta ingurumenean duen eragina, gehiago nabarmentzeko, nahi dugun digitalizazioak hori ondo kontuan hartzeko.

Kezkak, galderak. Ea asmatzen dugun alternatiba eraikitzen. Guk erabakitzeko herritarren zerbitzura dagoen digitalizazioa.

Bidegabea izan zen

Antton Izagirre

Urriko bi gertakari, memorian ez galtzeko. Bata, urriaren 12koa. Madrilgo eskuin agintariak Estatu Batuetara eginiko bidaiaren berotasunean, harrokeriaz gogorarazi berri digute Espainiak Ameriketako jatorrizko herri indigenen aurka egindako menderatze eta sarraskiak bidezkoak eta txalogarriak izan zirela. Lurralde konkistatu eta kolonizatu haien egungo garapenaren autoretza aldarrikatzea nahikoa ez eta, bizirik irautea lortu duten herri haiek beren oinarritzko eskubideen alde dararmaten borroka gutxietsi eta mespretxuz estali nahi izan dute.

Horrela idatzi izan dute mendez mende alde bakarreko kontaketa faltsutua,

guztioi urriaren 12ko jaiaz urtez urte inposatzen digutena.

Euskal jatorriko konkistatzaileak tarteko, Espainiako erresumak eta armadak Ameriketara sustraitu zuen su kolonizatzaile hark bizirik dirau gaur egun ere. Barneko muge-tan, katalan, euskal eta galiziar herrien aurkako, hizkuntza, kultura eta politika kolonizatzaileak horren lekuko.

Bidegabea izan zela eta izaten ari dela ezin ahaztu eta isildu.

Bestea, Aieteko Konferentziaren eta behin betiko su-etenaren 10. urteurrenekoa. Horretan ere aldebakarreko errela-toa inposatzeko dagoen tentaldia begi bistakoa da. Enegarrenez Urkulluk, alde bati bakarrik, eginiko minaren aitortza

eskatu dio. Bidegabea izan zela esan dezan.

Enegarrenez, errelatoa abantaila politiko lortzeko erabiliz, bere gobernuko alderdikideen eta bere alderdiaren erantzukizunpean eginiko eskubide urraketak, izan heriotzak, torturak, mehatxuak, bonba bidalketak, urrunketak... ahaztu eta isildu egin ditu.

«Zer dio ixiltzen denak/ ixiltzen denean», galdetzen digu Mikel Laboaren kantak, eta ondoan errepika: «Gure hitzak/esan berriz esan/ ez daitezela ahaztu/ ez daitezela gal». Esan Urkullu, esan, beste hori ere bidegabea izan zela, esan; memoria osoa ez dadin ahaztu, ez dadin gal. •

Literaturarekin jolasean

Miren Azkarate
Badiola

Axularrek “Geroa”-z ez dakit zer imajinatuko zuen. Ez dakit pentsatuko zukeen ere bere jaiotzatik 400 urte baino gehiago igarota, ehortzita dagoen hilerritik bi pausotara, euskaraz idatzitako literatura, poesia, prosa, saiakera eta narratiba hori guztia bilduko zenik azoka batean. Are gehiago, aurtan, 2021. urtean Sarako lurretan euskara hutsezko lehen haur eta gazte literatura azoka ospatuko zenik. Eta ez dakit ere hau jakingo balu zer pentsatuko zukeen. Baina badakit niri aurreko asteburuan zer eragin zidan.

Irakurzaletasun handiko familia gara eta haurrak ditugunetik haur literatu-

ra ere etxeko zirrikitu guztietatik da-bilkigu firin-faran. Hartara, Sarako Idazleen Biltzarrera gerturatu izan ga-ren bezala, Ikusi Mikusik antolatutako honetara ere animatu ginen egun-pa-sa. Espektatiba guztiak gainditu zizki-dan egunak eta hori, egiari zor, ez nin-tzela oso konbentzituta joan. Baina iritsi eta berehala gozatzen hasi nin-tzen, oso giro goxo eta familiakoa ze-go-en azokak prestatuta zituen areto guztietan: liburuak salgai zeuden erai-kinean, musikak girotutako ipuin kon-taketetan, antzerki eta magia ikuskizu-nean, literatur aretoan, marrazteko tailerretan... Imajinazioa arnasten zen

txoko guztietan, amets egiteko gonbi-ta zegoen ipuin, abesti, hitz joko eta is-torio guztien atzean. Irribarrea zen na-gusi haur eta helduen ahoetan (txikientzako pentsatutako eguna bai-tzen, baina helduek ere gozatu ederra hartu genuen), denon aurpegiak ikusi besterik ez zegoen. Antolakuntza eta parajea opari hau biltzeko papera izan ziren.

Gutxienez beste 400 urte opa diz-kiot egun honi eta Pedro Agerre Azpi-likuetak ez dakit, baina nik “Geroa”-k, euskal literaturarenak eta irakurlee-nak bederen, etorkizun polit bat duela ikusi nuen. •

MIKOLOGIA ETA GEHIAGO

Gorbeiako Bazterra elkartearen erakusketa, Zuian, naturarekiko errespetua bultzatzeko

 **NATURA /** Xabier Izaga Gonzalez

Perretxikoak biltzeko sasoia egokiera ona da haien gaineko ekitaldiak antolatzeko. Horixe egiten du Gorbeiako Bazterra Mikologia eta Natura Elkarateak duela hemezortzi urtetik. Iaz, osasun egoera zela-eta, bertan behera utzi zuten perretxikozaleen eta batez ere naturazaleen topagune hori. Aurten, berriz, aurreikusita-koaz beste, erakusketa ikusgarria eta hitzaldi bi antolatu dituzte.

Murgiko (Zuia) Jai Alai pilotalekuan, onddoak eta perretxikoak «barrutik eta kanpotik ezagutzeko, arazorik gabe bereizteko, habitaten berri jakiteko eta zalan-tzak argitzeko», 300 espezie inguru egongo dira ikusgai ingurune naturalizatu batean. XVII. edizio honetan, «mikologiaren eta naturaren munduko aditu profesionalak jakin-mina dutenen zerbitzura jarriko dituzte beren ezagutzak eta amarruak», diote antolatzaileek.

NATURAREKIKO ERRESPETUA

Patxi Giraldo Gorbeiako Bazterra elkarteko idazkari eta presidenteordeak, ekimen horren berri eman baino lehen, argi utzi nahi du elkartearen asmoa ez dela jendeari zein perretxiko jaten diren eta zein ez irakastea, baizik eta jendeak natura errespetatzen ikastea.

Besteak beste, Arabako mendi, zelai eta basoetako perretxikoen argazki erakusketa handi bat prestatu dute Gorbeiako Bazterra elkarteko kideek egin-dako argazkiekin. Edonola ere, Araba eta Euskal Herriko perretxikoak ez ezik, beste leku batzuetatik, hala nola Pirinioetatik edo Soriatik ekarritakoak ere egongo dira erakusketan.

Erakusketako txoko batean lupak eta mikroskopioak jarri-

Bihar, igandea, Zuiako Jai Alai frontoiak urteroko perretxiko eta onddo erakusketa hartuko du. Erakusketa baino zerbait gehiago da, ordea, Gorbeiako Bazterra Mikologia eta Natura Elkaratearen ekinbideak naturarekiko errespetua sustatzea baitu helburu nagusi. Astelehenean eta asteartean, berriz, elkarte horrek antolatutako egitarauaren barruan, hitzaldi bana eskainiko dute.



ko dituzte, perretxikoen barruak edo miniaturak ikusteko eta espezieak bereizten ikasteko. «Denak dira perretxikoak, eta bakoitzak bere egitekoa du mendian», nabarmendu du Giraldok.

Txikientzako tailerrak ere izango dira; izan ere, Gorbeiako Bazterra elkartearen helburua kontuan izanda, oso garrantzitsua da umeen eta gazteen parte-hartzea, bertan natura zaintzearen balioak ikasten baitituzte. Perretxikoak margo-tzeko aukera eta jolasak ere izango dituzte, perretxikoen inguruko jarduerak, haurrak erakartzeko entretenigarriak, betiere naturarekiko errespetu harremanak transmititzeko.

“Mikologia ezkutua” atalean, Txoko miko-ilogikoa eta landare haragijaleen txokoak bisitatzeko aukera ere badago. Txoko miko-ilogikoa zertan den azaldu du Giraldok. Perretxikotara joaten direnean, mendiko zaborra jasotzen dute eta jasotako gauza horietako batzuk erakusketan atontzen duten alegiazko basoan zehar botata uzten dituzte. Objektu horiei izena jartzen diete perretxikoak balira bezala; esate baterako, lata bat bada, “latarius” (*lactarius*). Horrelako “perretxikoz” osatua da txoko miko-ilogikoa. Halaber, kartelak zabaltzen dituzte, hainbat informazio eskaintzeko: mendira botatzen diren objektuek zenbat denbora irauten duten bertan, mendia errespetatu eta zaintzeko aholkuak, kutsaduraren ondorioak... Beraz, salaketa txoko garrantzitsua dela dio Giraldok.

Igandeko jardueraz gainera, bi hitzaldi mikologiko ere egingo dituzte egitarau beraren barruan. Astelehenean, hilak 18, 20.00etan, Zuiako udaletxean, Eduardo Fidalgok *boletaceae* familiako poro gorriko onddoen

gaineko hitzaldia egingo du, landaguneetan espezie horiek identifikatzen ikasteko. Hilaren 19an, era berean 20.00etan eta leku berean, Roberto Fernandez Isasiak basoei, haien garrantziari eta bertan hazten diren perretxiko eta onddoei buruzko hitzaldia egingo du.


HOGEI URTEKO IBILBIDEA

Gorbeiaiko Bazterra elkarteko kideek gustuko dituzte perretxikoak, jakina, baina jateko baino gehiago ikasteko. «Gu mendira joaten garenean, batzuetan perretxikoak hartzen ditugu eta beste batzuetan ez. Askotan zuhaitz baten inguruan geratzen gara goiz osoan, miniaturen bila, esate baterako. Batzuetan baten batzuk hartzen ditugu, baina normalean ez gara horretara joaten. Beharbada horregatik ez dugu ospe handirik», dio Giral dok. «Jende askori jateko baino ez zaio interesatzen perretxikoen mundua, zein den jateko modukoa eta zein ez jakitea eta ahalik gehienak hartzea». Gorbeiaiko Bazterrako kideek perretxikoak aztertu eta sailkatzea dute gustuko, eta horretarako laborategi bat ere badaukate.

Duela hainbat urte, Araban bazegoen 111 Taldea izenekoa eta hango bazkide batzuek, Zuia aldean bizi zirenek, Gorbeiaiko Bazterra sortu zuten, duela hogeit bat urte. Ondoren jende gehiago sartu zen elkartera. Hasieran talde mikologikoa zen; orain, berriz, mikologia eta natura taldea. Gaur egun 35 bazkide inguru dira.

Urtean zehar egiten dituzten irteeretako batzuetan basoko orkideak aztertzen ere jarduten dute. Izan ere, Patxi Giral dok dioenez, Araban 70 espezie inguru identifikatu dituzte.

Aurten ere ez zuten uste XVII. edizio hau egiteko aukera



Aurreko orrialdean, goian, bisitariak perretxikoak mikroskopioz eta lentez ikusten, duela urte biko erakusketan; behean, Txoko miko-ilogikoa. Lerroon gainean, erakusketaren bista orokorra eta, ondoan, kartela.

Gorbeiaiko Bazterra

XVII. MIKOLOGIA ERAKUSKETA

EXPOSICIÓN MICOLÓGICA

Jai Alai frontoian
MURGIA

GOIZEAN ZEHAR...

Exposición fotográfica • Mikologia oculta
Ruta mikopintxo • Txoko para los txikis
Txoko miko-lógico • Perretxikoak etxean txokoa
Txoko de las plantas carnívoras

URRIAK 17
OCTUBRE
ORDUA 10:00-15:00

hitzaldiakcharlas

Astelehena 18 - 20:00
Eduardo Fidalgo
"Boletaceas de Poros Rojos o cómo hacer una aproximación a la identificación de estas especies en el campo". Recomendamos las diferentes especies que crecen en nuestro entorno, señalando las diferencias que hay entre ellas para, así, poder realizar una aproximación a cada una de las especies.

Asteartea 19 - 20:00
Roberto Fdz. Isasia
"Bertoko basoak" Zer da basoa? Edozein zuhaitz multzo basoa ote da? Zer da bertoko basoa? Ingarren begira nonaino gaurtikola dauka basoen zantza egokiala? Perretxikoak begira, zer aurki dezakegu bertoko basoetan?

PLAZA DEL AYUNTAMIENTO
MURGIA
20:00 H.

ANTOLATZALEA ORGANIZA

GORBEIAIKO BAZTERRA
mikologia ta natura

LAGINTZAILAK KOLABORATZEN

Vital
FUNDACIÓN FUNDACIÓN

ZUIAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ZUIA

izango zutenik, eta egin zezaketa konturatu zirenean, antolatze denbora urria zuten. Udalak eskuarki horretarako dirulaguntza ematen die, baina aurten ez zuten eskatu, egiterik izango ez zutelakoan. Hala ere, pandemiaren bilakaera ikusita, antolatzea erabaki zuten. Edonola ere, Udaleko taldeek akordio bat egin zuten aurtengo Gorbeiaiko Bazterraren ekitaldietara diru sorta bat bideratzeko, eta kartelak egiteko ere lagundu die Udalak.

Egitarau murriztagoa izanda ere, jende asko joatea espero dute, aurreko urteetan bezala. Aurten ez dute beren pintxotxokoa prestatu, txosna, alegia, zozketa batekin batera elkarterako diru iturri dutena. «Tira dirua ateratzeko, ez; gutxienez, dirua ez galtzeko», dio Giral dok irribarrez. Ez dute txosnarik jarriko, baina Murgiko tabernetan perretxiko pintxoak egongo dira.



> Nandi Bushell eta klima aldaketa



GAUR8

Nandi Bushell 11 urteko musikariak berriro lortu du sare sozialetan birala izatea. Ospe-tsua egin zen Youtube-ra bate-ria maisuki jotzen bideo bat igo ostean. Lortutako oihar-tzunari esker, Foo Fighters tal-



dearekin jotzeko ametsa egia bihurtu zitzaion. Lenny Kravi-tzek kontzertu batean elkarre-kin jotzera gonbidatu zuen eta 2020an berarentzat espre-suki egindako danborrak opa-ritu zizkion.

Gaztea den arren, mundu mailako musikaririk handie-nen miresmena eskuratu du (Muse taldeko Matt Bellamyk sinatutako gitarra bat bidali zion euren kanta baten ber-tsioa egin izana eskertzeko). Orain, ospe hori aldaketa kli-matikoaren kontrako mezua zabaltzeko erabili nahi du.

Horretarako “The Children Will Rise Up!” abestia sortu eta bideoklipa egin du. Jack Black aktorearen kolaborazioa ere lortu du, Kapitain Planet moderno baten papera har-tuz. Izan ere, berak dei egiten die munduko hurrei euren indarrak batuz Lur planeta ba-bestu dezaten.

Kantan Tom Morello (Rage Against the Machine taldeko kidea) eta haren semea den Roman-ek ere hartzen dute parte, baita Greta Thunberg ekologista suediarrek ere.

Eskolan klima aldatetaren gaia jorratu zutenean burura-tu zitzaion abestia egitea. «Haurrak altxatu egingo di-ra!», dio hard rock doinuz bus-titzen den abestiak behin eta berri-z.



> Aberria

Urriaren 12an Estatu espainola-ren kolonialismoari kantatu diote elkarrekin Juanxo Araka-mak, Joël Prietok, Paula Herre-rok, Maria Noguerak eta Santi-go Higuera sek. Abesti baten bueltan elkartu dira Euskal He-rria, Katalunia, Aragoi eta Gali-zia. “Aberria/Patria/Pàtria” ize-neko abestiak Espainiako Estatuaren espiritu kolonialista



deskribatzen du eta Katalunia, Euskal Herria, Aragoi, Galizia eta Estatu espainiarreko eliteen arteko isileko adostasuna sala-tzen du, nazionalismoa politi-koki erabiltzen dutelakoan ara-zo sozialei aurre ez egiteko distrakzio maniobra gisa.

Salaketa indartsua kantuz eta bakoitzak bere hizkuntzan egi-ten duena.



> 10. Elkar Sketch maratonia

Eko-Sketchen azken edizioa Gasteizen izan zen 2019. urtean. Osasun larrialdiak behartuta, 2020an ez zen hitzordurik antolatu eta aurten berriz indartsu dator ekimena. 10. Elkar Sketch marrazketa maratonia gaur, urriaren 16, izango da Gasteizen. Aurreko edizioak Euskal Herriko toki desberdinetan antolatu izan dira eta hitzorduak izen desberdinak hartu ditu; Bilbo Sketch, Donostia



Sketch edo Eko Sketch, besteak beste.

Adin guztietako berrehun marrazkilari baino gehiago ibiliko dira hirian barna marrazketa maratonia. Gutxienez lau gune hauek marraztu beharko dituzte: Bibat museo-Bandaña jauregia, Goiuri jauregia (Aihotz plaza), San Migel Arkanjeluaaren eliza (Andre Maria Zuriaren plaza) eta Otxanda Andrearen doorea-Arabako zientzien museoa.

> Hizkuntza ikastaroak

Hurrengo udan ingeles, frantses eta alemana atzerrian ikasteko egonaldietako deialdia zabaldu berri du Lakuak. Orotara 548 leku izango dira Irlandan, Estatu frantsesean, Alemanian eta Erresuma Batuan banatuta. Agindua argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hilabeteko epea dago eskaera egiteko.

Orotara 548 leku eskainiko dira, DBHko 3. eta 4. mailetak eta Batxilergoko lehen eta bigarren mailetak ikasleentzat. Deialdiak 847.038 euroko aurrekon-



tua du. Hizkuntza ikastaroak egiteko leku bat eskuratu nahi duten ikasleek baldintza batzuk bete behar dituzte: aukeratutako hizkuntzan edo hizkuntzetan (ingelese, frantsesa edo alemana) aurreko ikasturtean gutxienez 7 puntuko nota eskuratu izana; aurreko ikasturteko batez besteko nota eta hautatutako hizkuntzan jasotako notaren arteko batuketan 16 puntu edo gehiago lortu izana, adibidez. Egoera ekonomikoak ere izango du zeresana.



> Haurren buru osasuna

Agifeseak, buru osasun arazoak dituzten pertsonen eta senideen Gipuzkoako elkarteak, bat egin du urriaren 10ean ospatzen den Buru Osasunaren Nazioarteko Egunaren harira antolatutako ekintzekin, eta aurten haurren eta gazteen osasun mentala azpimarratu du. Buru-nahasmenduak nerabezaroan sortzen dira, batik bat, eta gero



eta adin txikiagoetan antzematen ari dira. Hori dela eta, Gipuzkoako elkartearen ustez, funtsezkoa da gazteenei arreta hobea eskaintzea. Adituek nabarmentzen dutenez, «ezin ditugu modu berean artatu kronikotasun maila jakin bat duen pertsona bat edo buru osasuneko arazo baten lehen sintomak dituen nerabe bat».



Edurne Larraza Mendiluze

Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlaria, UPV/EHU

Europako Kode Astea (European Code Week)

Urriaren 16a izanik, **Europako Kode Astearen** **erdian kokaturik gaude**. Urriaren 9an hasi eta 24ra bitartean luzatuko den ekimen honek kodeketa eta alfabetatze digitala guztioi modu dibertigarri eta erakargarrian helaraztea du helburu.

Ada Lovelace Eguna hartzen du abiapuntu. Ada Lovelace Eguna ez dator bat bere jaiotza egunarekin (1815eko abenduaren 10a) abenduan gauza gehiegi dagoelako ospatzeko, ezta bere heriotzarekin (1852 azaroaren 27a) ospatzeko gazteegi hil zelako. Beraz, ausaz aukeratu zen urriaren bigarren asteartean ospatzea. Aurten, 2021ean, urriaren 12an izan da, emakumeek zientzian, teknologian, ingeniarietan eta matematikan egindako lorpenak nazioartean ospatzeko egun hau. Helburua, alor horietako emakumeen profila handitzea eta, hori eginda, eredu berriak sortzea, neskei alor horietara gerturatzeko kemena ematea eta jadanik hor daudenei laguntzea da.

Gaur egun, aitzinean ez bezala, ez dago emakumezko bati unibertsitatean edozein ikasketatan sartzeko bidea oztopatuko dion inongo idatzizko araurik. Arrazoiak gizartearen eraikitzen ditugun aurreiritzi eta topikoe-tan bilatu behar ditugu gehienbat eta horiek, oro har, ezjakintasunean oinarritzen dira. Horregatik, erakargarria izan daitekeen etorkizun bat irudikatu ahal izateko gazteek ereduak eta arlo zientifiko bakoitzean ikasi ahal izango dutenaren oinarriak ezagutu behar dituzte.


Ekarpen honen bidez, Ada Lovelace Egunaren zein Europako Kode Astearen helburuekin bat datozen hainbat ekimen jarri nahiko nituzke mahai gainean, hezkuntzan edo bestelako inguruneetan erabilgarri izan daitezen.

Hasteko Wikipedia aipatuko dut. «Emakumeak informatikan» artikulua errebaso historiko ederra egiten du XVIII. mendetik gaur egungo emakumeetaraino eta «Emakume informatikariak» kategoriaren azpian 61 artikulua aurkitu daitezke euskaraz. 60 emakume informatikari gehi e-makumeak taldeari buruzko artikulua. Azken hori, Donostiako Informatika Fakultatean emakumeen artean informatika sustatzeko sortutako taldea. E-makumeak gara, hain zuzen ere, GAUR8n hilabetero informatikari buruzko ekarpen hau egiten dugunok. Honezkero, 2014an hasi ginenetik 100 ekarpen baino gehiago egin ditugu eta horien guztien estekak ondorengo helbidean aurki daitezke: <https://www.ehu.es/ehusfera/e-makumeak/gaur8koak/>

Bestalde, scratch.mit.edu eta code.org webgune apartak dira kode-


keta lantzeko, baina kodeketa edo programazioa informatikaren azpimultzo bat baino ez dira. Informatika, beste kontzeptu asko azpian dituen aterki handi bat da. Horregatik, JolasMATIKA proiektuan (jolasmatika.ehu.eus) gai horiek jolasen bidez lantzen dira. Informatika konputagailurik gabe lantzeko aukerak aurkituko dituzue hauetan: <https://code.org/curriculum/unplugged>, <https://csunplugged.org>. Europako Kode Asteak ematen dituen baliabideak hemen: <https://codeweek.eu/training/> eta azkenik, <https://www.bebbras.org/> proiektuan ere pentsaera konputazionala lantzeko denborapasak aurkituko dituzue.

Argi dago lana badaukagula materiala lokalizatzen baina momentuz, ingelesez bada ere, ospa dezagun Europako Kode Astea informatikan murgilduz! •



BEHATXULO[TIK

Juantxo EGAÑA



JULIAN ZULUETA, ESKLABO SALEROSKETAREKIN ABERASTU ZEN ARABAR «EREDUGARRIA»

“Los pilotos de altura” liburuan, Pio Barojak esklaboen trafikoari buruz idatzi zuen, hots, itsasontzi kapitainei «kateatutako afrikarraren zoritxarrak atsekabetzen ez zitueneko» bidaiei buruz: «Animaliatzat jotzen zuten (...) diru goseak bultzatzen zituen beltzei beren ontzian hilkutxan hildako batek hartzen duenaren antzeko espazio bat besterik ez uztera. Beltz asko beti beren gorputzaren alde batean bermatuta bidaiatzera behartuta zeuden, beren baitara markututa, oinak luzatu ezinik. Zoru oso gogorrean etzanda, soinekorik gabe, itsasontziaren mugimenduak ekarri eta eramanda, haien gorputza ultzeraz estaltzen zen eta burdinek eta elkarri lotuta zeuzkaten kateek gorputz-adarrak urratzen zituzten berehala». Artikulua ilustratzen duen erretratua Julian Zuluetaarena da (1814-1878), Arabako Anuntzeta herrian jaio eta 1832tik Habanan bizi zena. Esklabo trafikatzaila izan zen, pertsona-tratularia. Gupidagabe baten erretratua da, eskrupulurik gabeko gizon batena, beltzen salerosketarekin aberastu eta trenbide eta itsasontzi garraioarekin zerikusia zuten enpresetan, komunikabide batzuetan eta azukre industrian akzioak zituena. Habanako alkate izan zen 1860, 1870, 1874 eta 1876an; era berean, biziarteko senatari eta Arabako diputatu izendatu zuten 1876an.

GAUR8

ireki gure leihoa

